



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**BELAUNALDIARTEKO
GIZARTEA LORTZEKO
NORABIDEAN:
NOLA BULTZATU
ADIN GUZTIENTZAKO
PROGRAMAK?
GIDA PRAKTIKOA**



SUSTATZAILEA: **Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila.**

EGILEAK: **EDE Fundazioaren Ezagutzaren Zentroa.**

TALDE ERAGILEA: **Álvaro Mosquera (Aspaldiko Fundazioa); Iñaki Artaza (Zahartzaroa: Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkargoa); Iñigo Vidaurrazaga (Gizardatz: Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkartea); Luis Miguel Porto (Aisi-Hezi: Astialdi Hezitzailearen Sustapenerako Fundazioa); Miren Maite Alonso (Euskadiko Eskola Kontseilua); Natxo Arnaiz (Bolunta: Boluntariotza eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia), Pilar Ardanza (Bizkaiko Foru Aldundia), Sabin Ipiña (Bizkaiko Adinekoen Kontseilua) eta Sergio Murillo (Bizkaiko Foru Aldundia).**

ESKERRAK: **Alfonso López (EAPN-Euskadi) jaunari eta Jose Ramón Orcasitas (UPV-EHU) jaunari.**

EDITOREA: **Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila.**

DISEINATZAILE GRAFIKOA: **Logorifmo.**


INPRIMAKETA: **Gráficas Mungia.**

SORTA: **2.500**

LEGEZKO GORDAILUA: **BI-359-2015**

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	ZERGATIK EGIN DUGU GIDA HAU?	7
3.	BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK ZER DIREN ZEHAZTEA	8
4.	ZERGATIK SUSTATU BEHAR DIRA BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK?	9
5.	NORI ZUZENDUTA DAUDE PROGRAMA HORIEK? ETA PERTSONA HORIEK ZER BULTZATU EDO ZERTAN PARTE HARTU BEHAR DUTE?	11
6.	AZALPENEZKO ADIBIDEAK	12
	OSTATU ALTERNATIBOEN PROGRAMA: BELAUNALDIARTEKO BIZIKIDETZA ETA ELKARRI LAGUNTZEA	14
	JAKINDURIA BABESTU	16
	YOS-CONCEPT. YOUNG AND OLD IN SCHOOL	18
	HEAR ME! (ENTZUN IEZADAZU!)	20
	GÜRE AITON AMONAK	22
	BELAUNALDIARTEKO ORTUA	24
	MIX@GES	26
	WILD, WILD WOMEN. BELAUNALDIARTEKO JARDUERA ARTISTIKOA, 10 URTEAN, THE WOMEN LIBRARY LIBURUTEGIAN	28
	CIBERMANAGERS	30
	TOPAKETA KULTURALAK ETA INTEGRATZAILEAK ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEKIN ETA EGOITZAN BIZI DIREN MENDEKO PERTSONA ZAHARREKIN	32
	BARAKALDO ATZO... ETA PORTUGALETEKO FILM-PROGRAMAK	34
	ZER IKASI DUGUN ESPERIENZIA HORIETATIK...	36
	BESTE ESPERIENZIA-BANKU BATZUK...	37
7.	IBILBIDEKO ETAPA BAKOITZEKO PAUSOAK ETA EKINTZAK	39
8.	HAIZEAK ERABILTZEA, GURE IBILBIDEA ARRAKASTAZ AMAITZEKO	49
9.	ERANSKINA	51
	GIDAREN BERTSIO LABURTUA: BELAUNALDIARTEKO PROGRAMEKIN BAT EGITEKO MOTIBAZIOA SUSPERTZEKO TRESNA	51
	ARGAZKIAK	56



1. AURKEZPENA

Esku artean daukazun gida hau Bizkaiko Foru Aldundiaren etengabeko lanaren emaitza da, hain zuzen ere, ekitate eta justizia arloan gizarte integratzaileagoa eraikitzeko Aldundiak egiten duen ahaleginaren emaitza. Denon artean eta pertsona guztiarentzako gizarte bat eraikitzeko aldarrikapena egiten dugu, eta eraikuntza horretan gure ekarpen txikia egiten saiatzen gara. Gida hau asmo eta ardura horren emaitza ere bada.

XXI. mendean, inoiz baino gehiago, gure lurraldean belaunaldi desberdinek bat egiten dute denboran. Hala ere, denboran bat egiteak ez du bermatzen belaunaldien arteko elkarrekintza, elkartrukea eta lankidetzak.

Belaunaldien arteko harremana, berez, bitartekoa eta helburua da, eta neurri zehatzen bidez lortu daiteke. Ildo horretatik, gida honek aukera ematen du belaunaldien arteko topaketa eta lankidetzarako eszenatoki berriak zehazteko eta bideratzeko. Azken batean, gida honek belaunaldien arteko harremanak gizarteari egiten dion ekarpena aintzat hartzea lortu nahi du, eta horretarako, jarraibideak eta gomendioak ezartzen ditu. Halaber, gida honen bidez, era horretako programak abiarazteko laguntzako baliabideak identifikatu nahi dira.

Gida honetako kapitulu batzuetan azaltzen da belaunaldien arteko programak zer diren, nola sustatu behar diren, nortzuek sustatu eta esku hartu behar duten, zer urrats eman behar diren....

Hitzaurre honetan aitortu behar dugu hori ez dela gure lana bakarrik; badakigu, batez ere, denon artean egin beharreko lana dela. Aintzatespena egiteaz gain, ekintzarako deia ere egiten dugu. Batetik, Bizkaia osoan zehar, zenbait programaren bidez, belaunaldien arteko harremanetarako lan egiten duten pertsona guztiak aintzatetsi nahi ditugu (programa horietako batzuk jaso dira gida honetan). Bestetik, gizarte guztion artean, hau da, bizi-ziklo desberdinetan dauden pertsona guztion artean eraiki behar dela uste dutenentzako deia da.


Aintzatespena eta deia gida hau egiteko prozesuan islatuta geratuta dira. Hasiera-hasieratik uste genuen adin guztietako pertsonentzako gizarte bat eraikitzeko asmo bizia duten pertsona eta erakundeekin batera lan egin behar dela. Bizkaiko Foru Aldundiak talde eragilearen partaidetza eskertu nahi du, eta beraz, gida hau ahalbidetzea ere bai. Eskerrik zintzoenak eman behar dizkiegu guztiei, gida hau proiektu kolektibo bat bihurtzeagatik eta laguntzeko asmoz sortzeagatik.

Gida hau liburu formatuan zabalduko da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian ere eskuratu ahal izango da. Espero dugu gida honek gogoetarako argudioak ematea, ekimen berriak garatzen laguntzea, belaunaldien arteko harremanaren ikuspegi ahalik eta agente eta proiektu gehienetan txertatzea, eta, azkenik, adin guztietarako gizarte baten eraikuntzan aurrera egitea.



Mª PILAR ARDANZA URIBARREN

Gizarte Ekintzako foru diputatu andrea. Bizkaiko Foru Aldundia



2. ZERGATIK EGIN DUGU GIDA HAU?

Bizkaiko Lurralde Historikoan gero eta gizarte-eragile gehiago konturatzen ari dira belaunaldiarteko programak eta guneak sustatu behar direla, adin ezberdinetako pertsonen arteko topaketak eta elkarlana bultzatzeko. Izan ere, ikuspegi hori Europan zehar zabaldu da, gizarte solidarioa eta integratzailea lortzeko modu eraginkortzat hartuta.

Belaunaldiarteko jarduera guztien helburua *guztiantzako gizartea* sortzea da. Nazio Batuen Elkarrekin¹, hain zuzen, proposatu zuen izen hori, adin guztietako pertsonak barne hartzeaz gain, guztien beharrei erantzun eta bizi-kalitatea bermatu ahal izateko.

Lan honetan jaso nahi izan ditugu gure inguruneko eta beste testuinguru batzuetako esperientzietatik atera diren eza-gutza esanguratsuak, beste esperientzia batzuk sortu ahal izateko. Gida sortzeko lanean Bizkaiko lurraldeko gizarte-eragile asko aritu dira elkarrekin. Egileak ikuspegi zabala erabiltzen eta prozesua aberastan saiatu dira, emaitza baliagarria izango dela bermatzeko.

Gida honek aukera ematen du ekimen

1. NAZIO BATUEN ELKARTEA. *Informe de la Segunda Asamblea Mundial sobre el Envejecimiento. A/CONF.197/9*. New York: Nazio Batuen Elkarrea, 2002.

berriak garatzeko, edo jada abian daudenak beste era batean bideratzeko. Helburua belaunaldien arteko benetako elkarlana eta topaketak sustatzeko guneak sortzea da.

HONAKO HELBURU HAUEK BETETZEKO BALIAGARRIA IZAN DADIN DISEINATU DUGU:

Inspirazio- eta **motibazio-**iturria izatea, hainbat gizarte-eragilerentzat (herri-administrazioa, hezkuntza-sistema, hirugarren sektoreko erakundeak). Horrela, askotariko esparrutatik bultzatuko da belaunartekotasuna.

Belaunaldiarteko programak martxan jartzeko gidalerroak eta gomendioak ezartzeko **laguntza-tresna** izatea.

HONELAKO BALIABIDEA IZANGO DELA PENTSATU DUGU:

Premia eta aukera ezberdinetara moldatuta dago; hortaz, garapen- eta konplexutasun-**maila anitzak** dituzten ibilbideak bertan azalduta daude.

Baliagarria izatea belaunaldiarteko ikuspegia beste eragile sozial batzuek abian jarri dituzten hainbat programari **gehitzeko**, eta programa berriei ekiteko.

3. BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK ZER DIREN ZEHAZTEA

Belaunaldiarteko programetan adin ezberdinetako pertsonen **harremanak** eta **elkarlana** sustatzen dira. Helburua **ezagutzak**, **gaitasunak** eta **balioak elkarri ematea** eta **frukatzea da**. Bizipen

aberasgarria da norberarentzat zein taldearentzat, eta, gainera, **erkidegoaren kohesioa eta garapena** indartzen dira.

Programa horiek, adin eta belaunaldi ezberdinetako pertsonak biltzeaz gain, elkarrekiko eragina eta elkarrekintza bultzatu nahi dute

**HARREMANAK, KOOPERAZIOA,
ELKARTRUKA**



Parte-hartze aktiboa eskatzen dute; izan ere, ezagutzen elkartrukea esanguratsua da, programaren bidez izaten diren esperientziei esker.

**PARTE HARTZEA,
ESPERIMENTATZEA**



Aldaketa bat eragin nahi dute. Ez dira ausaz gertaturiko egoerak: antolatu egin behar dira.

XEDE ZEHAZTA



Balioa ematen diete, bai parte-hartzaileei, bai bertako erkidegoari. Ikaskuntzaren barnean, oinarizko gaitasunak-trebetasunak, ezagutzak eta balioak- eskuratzen dira; hortaz, herritar erantzuleak sustatzen dira.

**GAITASUNAK, ERKIDEGOAREN
GARAPENA**



4. ZERGATIK SUSTATU BEHAR DIRA BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK?

Azken urteotan gizartean sortu diren erronkak gero eta zailagoak dira; horrek mekanismoak eta estrategiak sortzera behartzen gaitu, uneko beharrei erantzun solidarioagoa eman nahi baldin badiegu.

Herritarren eginkizuna bereziki garrantzitsua da erronka horiei aurre egiteko. Gizartearen eraldaketan² ezinbestekoa dugu herritar guztien parte-hartzea. Zehatzago esanda, gizartea eraldatuko badugu, jendarte indartsuagoak eta osasuntsuagoak beharko ditugu; eta belaunaldiarteko faktorea, hain zuzen, funtsezkoa da benetako aldaketa eragiteko.

Harremanen ikuspegitik, eraldaketa horretan gako dira jende arteko loturak eta harreman-sareak. Izan ere, lotura eta harreman horiek kapital soziala³ sortzeko gune bihur daitezke, bertan gizartearen hazkunde eta garapen iraunkorak sustatzeko harreman egokiak bultzatuko direlako.

Aspaldian erakunde nagusietan (familia, erlijio-erakundeak, gizarte-erakundeak, klase-egiturak...) garatzen ziren loturen egonkortasuna aldatu egin da, eta funtsezko eragina izan du gure harreman-moduetan. Belaunaldien arteko banaketa gero eta handiagoa da, besteak

beste, bizimoduak bultzatuta, elkarrekin egoteko gero eta denbora gutxiago dugulako, pertsona bakarrek familia-eredua gero eta ohikoagoa delako, etab.

Hortaz, zentzuzkoa dirudi honako ikuspegi honek: jendartearen eta erkidearen garapena, hau da, jendarteko bizitza, bultzatuko badugu, urruntze- eta banatze-egoera horiek konpondu beharko ditugu, loturak ahultzen dituztelako; eta, horren ordez, **jendartearen kohesioa** bultzatu beharko dugu. Kohesio hori, hain zuzen, indartzen dute belaunaldiarteko programek, eta, oro har, aniztasuna eta belaunaldi guztietako ikuspegi, gaitasunen eta aktiboen integrazioa bultzatzen dituzten formula guztiek, adin ezberdinetako taldeen arteko elkarriketa eta lankidetzak bultzatzen dituztelako.

Beharrezkoa da, beraz, pertsona guztiei aitortzea eskubide eta betebeharrak, adina, belaunaldia edo gaitasunak alde batera utzita. Horrek eskatzen du adin guztietako pertsonentzako gizarteetan sinestea; horrela, pertsona guztiek elkarri eragin, lagundu, eta indartuko diote. Ondorioz, gizarte **inklusiboagoa** sortuko dugu, berdintasunaren eta justiziaren ikuspegitik.

Belaunaldiarteko ikuspegia baliabide egokia izan daiteke pertsona guztien gaitasunak garatzeko eta baliatzeko: pertsonen elkarrengandik ikasten dute, eta, aldi berean, **parte-hartzea** eta **solidaritatea** ere bultzatuko dira haien artean. Belaunaldiarteko programen mamia elkartruke solidarioa da; nolabait, familia batean bizi diren belaunaldien arteko baliok

ZERGATIK
SUSTATU BEHAR
DIRA BELAUNALDIARTEKO
PROGRAMAK?

2 PEÑA-LÓPEZ, I. (Koord.) et al. *Ciudadanía y ONG. El nuevo papel del tercer sector ante el cambio de época*. Documentos para el debate 5. Bartzelona: Esplai Fundazioa, 2013.

3. Kapital sozialtzat hartzen ditugu gizarte-harreman batzuetatik sortzen diren baliabideak. Norbera edo taldea sare batean baldin badago, baliabide batzuk eskuragarri izango ditu; eta sarean egon ezean, nekez eskuratuko lituzke.

erkidegoan birsortuko dira. Bizipen horrek herritarrei laguntzen die norberaren erantzukizunaren eta gizabidezko jokaeraren beharraz jabetzen; hortaz, handiagoak izango dira herritarren parte-hartzea eta erantzukizuna.

Bestalde, agerikoa da belaunaldiarteko programek gaur egungo **demografia-aldaketa** esanguratsuei aurre egiteko balio dutela, pertsona zaharren parte-hartzea zaintzen eta bultzatzen dutelako. Bizi-itxaropena eta zahartzaroan herritar aktiboak izateko aukera handiagoak dira (urte gehiagoan eta hobeto bizi gara, urte gehiago bizitzeko baldintzak hobetu dira...); hortaz, pertsona zaharren ekarpena –bizitzan zehar bereganatu duten eskarmentu zenbatezina– integratzeko gai den gizarte bat lortzeko ahalegina egin behar dugu, guztion onurarako izango baita⁴.

Belaunaldiarteko solidaritateak lotura handia du **bizitzak irakatsitakoarekin**. Gainera, solidaritate horren bidez ezinbesteko gaitasunak berreskuratuko ditugu ezagutzen, egiten, izaten eta elkarrekin bizitzen ikasteko⁵. Belaunaldiarteko ezagutzak elkarri trukatu, adin ezberdinetako lagunek elkarrengandik ikasten dute; belaunaldi ezberdinetako pertsonak elkarrekin aritzen dira, gaitasunak, balioak eta ezagutzak lortzeko.

Hauxe da Europako Batzordeko Etengabeko Ikaskuntzako Programaren lehen-tasun nagusia: «**Balioa sortzea hazkundera** ezagutzetan oinarrituz, gizarte

inklusiboetan herritarren eginkizuna sustatuz, eta herritarrei aukera emanez etengabe ikasteko eta gaitasunak bizitza osoan eguneratzeko». Programa horretan azpimarratzen da garrantzitsua dela ezagutzak belaunaldien artean transferitzea⁶.

Era berean, pentsa daiteke ikaskuntza-politikak gizarte- eta ekonomia-politika zabalagoan txertatzen direla, eta politika horri eragiten diotela. Hori dela eta, erraz jo daiteke belaunaldiarteko ezagutzen transmisioa gako dela gizartean gaur egun ditugun hazkunde- eta garapen-**erronka** nagusiei aurre egiteko.

Europar garapen-erronka eta -xede horiek (enpleguaren, ikerketaren, berrikuntzaren, klima-aldaketaren, energia-aren, hezkuntzaren eta pobrezia-aren aurkako borrokaren arloetan) Europa 2020 Estrategian⁷ zehaztu dira. Horixe da Europako Batasunak zehaztu duen estrategia, honelako hazkundera bultzatzeko: hazkunde adimenduna (ekonomiaren garapena ezagutzetan eta berrikuntzan oinarritzea), hazkunde iraunkorra (baliabideak era eraginkorragoan erabiltzen dituen, ekologikoagoa den eta lehia-korragoa den ekonomia sustatzea) eta hazkunde integratzailea (enplegu-tasa handiko ekonomia sustatzea, zeinak gizarte- eta lurralde-koheresia ere izango baitu). Belaunaldiarteko programak bultzatzea garrantzitsua da; izan ere, oso baliagarriak dira, Europako estatu kideek lehen-tasuneko helburuak ezarri dituzten eremu horietan aurrera egiteko bideak zabalatzeko.

4. Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak irizpen hori eman du *adineko pertsonen gizartean duten inplikazioari eta parte-hartzeari buruz* (ekimen-irizpena), 2013.

5. Lau gaitasun horiek dira Delors Txostenean jasota dauden lau hezkuntza-oinarriak; horiek dira, hain zuzen ere, hainbat herrialdeko legeetan bildu diren oinarriko gaitasunen iturria. Delors, J. (1996.): «Los cuatro pilares de la educación» in *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión internacional sobre la educación para el siglo XXI*, Madrid, Espainia: Santillana/ UNESCO.

6. EUROPAKO BATZORDEA. EACEA. *Etengabeko Ikaskuntzako Programa. Proposamenak egiteko deialdi orokorra 2011-2013. Lehen-tasun estrategikoak 2020*.

7. *Europa 2020. Hazkunde adimenduna, iraunkorra eta integratzailea lortzeko estrategia*.

5. NORI ZUZENDUTA DAUDE PROGRAMA HORIEK? ETA PERTSONA HORIEK ZER BULTZATU EDO ZERTAN PARTE HARTU BEHAR DUTE?

Belaunaldiarteko programen helburuak askotarikoak izan daitezke, eta onurak ere anitzak izan daitezke. Arlo askotan eragiten dituzte eraldaketak: pertsona gisa, erakunde gisa, gizarte gisa... Eta, azken batean, lagungariak dira gizarteak gaur egun gairitu behar dituen erronka batzuei aurre egiteko.

Harreman-gizartean, geurean, gero eta lausotuago daude gizarte-eragileen funtzioak, beraz, erronka horiei aurre egin nahi badiegu, herritarren ongizatea erantzukizun partekatua dela onartu beharko dugu. Horregatik, belaunaldiarteko programen bultzada ere guztion artean eman beharko dugu.

BELAUNALDIARTEKO PROGRAMEK HONELAKO ERKIDEGOAK BULTZATZEN DITUZTE (MAKRO ETA MIKROMAILETAN)



NORI ZUZENDUTA DAUDE PROGRAMA HORIEK? ETA PERTSONA HORIEK ZER BULTZATU EDO ZERTAN PARTE HARTU BEHAR DUTE?

6. AZALPENEZKO ADIBIDEAK

Atal honetan 11 adibide aurkeztuko ditugu, eta aplikazio oso ezberdinak dituzten belaunaldiarteko jarduerak erakutsiko dizkigute. Gure asmoa ez zen programa guzti-guztiak biltzea, baizik eta jardunbide egokiak eta hausnarketa eta ekimen berriak bultzatzen dituzten adibideak azaltzea.

Hautatu ditugun programak zenbait **eragilek** bultzatu dituzte, eragile guztien artea bereganatzeko, eta ekintzak egitera animatzeko. Adibideak sailkatzeko irizpidetzat hartu da ekimena sortu duen eragilea⁸: herri-administrazioa, hezkuntza-sistema, hirugarren sektoreko⁹ erakundeak eta beste eragile batzuk.

Honen bidez erakutsi nahi izan dugu belaunaldiarteko jarduera batek modu esanguratsuan lagun dezakeela gizarte garaikideko **erronka** nagusietako batzuk irabazten. Hori dela eta, adibideak sailkatzeko erabili ditugun irizpideak izan dira, batetik, haien helburuak; eta, bestetik, Europa 2020 Estrategia¹⁰ deritzon Europako Batasuneko hazkunde-estrategian lehenetsi diren arloetan egiten duten ekarpena. Hona hemen lehenetsitako arloak: enplegua, berrikuntza, iraunkortasuna, hezkuntza eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

Bestalde, programak hautatzerakoan, **parte hartzen duten belaunaldiak** askotarikoak izatea kontuan hartu dugu.

8. Programa bat eragile batzuek bultzatu dutenean, ekimena sustatu edo zuzendu duen eragilea aukeratu dugu.


9. Hirugarren sektorea osatzen dute irabazi-asmorik gabeko erakundeak

Hau da, pertsona zaharren eta gazteen arteko ohiko adibideak aipatzeaz gain, beste batzuk ere kontuan hartu dira: pertsona zaharren eta helduen artekoak, gazteen eta umeen artekoak, etab. Horrela, aukeren aniztasuna erakutsi nahi izan dugu, eta jardunbideak eguneroko bizimodura hurbildu ditugu.

Horrekin batera, programen **konplexutasunaren** heterogeneotasuna ere zaindu nahi izan dugu; horregatik, adibide batzuk sinpleak dira; eta, beste batzuek, ordea, parte-hartzaile, ekintza eta baliabide ugari biltzen dituzte.

Atal honen amaieran, 11 esperientzia horietatik atera ditugun ezagutzen laburpena adierazi dugu. Horrez gain, esperientzia-bankuen zerrenda idatzi dugu, zenbait erakundek argitaratu dituzten esperientziak, eta beste hainbat adibide eta jardunbide egoki bertan jasota baitaude.

10. Europa 2020 Estrategiak ezartzen du EBko ekonomiak adimenduna, iraunkorra eta integratzailea izan behar duela eraldatzen ari den mundu garaikidean. Hiru ezaugarri horiek elkarri ematen diote indarra, eta EBri eta estatu kideei lagunduko diete enplegu-, ekoizpen- eta herritarren arteko kohesio-fasa altuak lortzen. Horretarako, bost helburu ezarri dituzte zenbait arlotan: enpleguan, berrikuntzan, hezkuntzan, herritarren kohesioan eta klimaren edo energiaren arloan. Horrez gain, horiei lotutako zazpi ekimen martxan jarri dituzte: «Europako Agenda Digitala», «Berrikuntzaren aldeko batasuna», «Gazteria mugimenduan», «Bitartekoak eraginkortasunez erabiltzea European», «Mundializazio-garaietako industria-politikak», «Gaitasun eta enplegu berriak biltzen dituen agenda» eta «Pobreziaren aurkako plataforma»



AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

1

OSTATU ALTERNATIBOEN PROGRAMA: BELAUNALDIARTEKO BIZIKIDETZA ETA ELKARREKIKO LAGUNTZA

Deustuko Unibertsitatea.

Bilbo, Bizkaia.

Ekarpena jasotzen duen erronka nagusia:

Gizartean integratzea

Parte hartzen duten

belaualdiak: 65 urtetik gorako pertsona autonomoak, guraso bakarreko familiak, familiak seme-alabekin eta unibertsitate-ikasleak.

AZALPEN LABURRA

Deustuko Unibertsitateak 1994. urteaz geroztik sustatu du belaualdi arteko bizikidetza-programa bat: «Ostatu Alternatiboa: belaualdi arteko bizikidetza eta elkari laguntzea» (*Alojamamiento Alternativo: convivencia intergeneracional y ayuda mutua*). Unibertsitateko ikasleei ostatu-arazoak konpontzen laguntzen die, eta, aldi berean, unibertsitateko esperientzia aberasten duten zenbait balio sustatzen ditu, hala nola solidaritatea, errespetua eta elkarrekikotasuna.

Gizarte Langintzako ikasle baten ideia izan zen; horren arabera, pertsona zaharrek, guraso bakarreko familiek edo seme-alabak dituzten Bilboko familiek doan eskaintzen diete ostatu Deustuko Unibertsitateko ikasleei, hau da, beste probintzia edo herri batzuetatik etorri direnei. Ostatuaren ordeztu, ikasleek laguntza ematen diete familiei: konpainia egiten, etxeko lanak egiten, seme-alabak zaintzen, aisialdian, etab.; eta etxeko gastuak ere partekatzen dituzte (argia, ura, etab.).

Belaualdi ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizitzeko jarduerara oso hedatua dago munduan. Gaur egun, Espainiako hiri askotan egiten dira horrelako programak, unibertsitate-ikastegien lankidetzarekin batera. Izan ere, nazioartean **Homeshare International** sarea osatu da, eta Deustuko Unibertsitatea sare horretako kidea da. Funtsuzko helburua elkarrekikotasun-irizpideari jarraitzea da, hau da, alderdi guztiek ekarpena egiten dute, eta, hartara, errespetatuta sentitzen dira; beraz, alderdi biek duintasunez eta ilusioz sinatu ahal dute elkarrekin bizitzeko akordioa.

Belaualdi ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizitzeari buruzko ekimenaren helburuak hauexek dira: unibertsitatea gizartera zabaltzea eta belaualdien arteko solidaritatea elkarrekikotasunaren bidez sustatzea; aldi berean, gazteek aukera dute zailtasunak dituzten pertsonak edo taldeak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko.

AZALPENEZKO ADIBIDEAK

FRAGILE SUSTATZAILEA: HEZKUNTZA-SISTEMA

FUNTZIONAMENDUA

Ikasleek ikasturte oso bat egin behar dute, eta gaztelania erraztasunez hitz egin behar dute. Deustuko Unibertsitatearen Gizarte Ekintzako Zerbitzuak laguntza eskaintzen die familiei, pertsona zaharrei eta ikasleei prozesu osoan. Horrela, elkarrekin bizitzeko eta elkarren artean konpartitzeko esperientziaz alderdi guztiek gozaten dutela bermatzen da. Programan parte hartzeko ezarritako profila bete behar dute alderdiek, eta, programan ezarritako eginbeharrak ere bete behar dituzte.

Laguntzaren barnean hartzen dira: eskaeren izapideak egitea, hautagaien onarpena kudeatzea, kasuak banaka aztertzea eta alderdien arteko lotura lantzea. Bizikidetzara-erakundeak ezarri eta hitzarmena sinatu ondoren, hilabeteko proba egiten da. Hilabete horretan alderdi batekin eta bestearekin hitz egiten da, banan-banan. Hilabete horretan edonoiz buka daiteke elkarrekin bizitzeko akordioa, alderdietako bat eroso sentiitzen ez bada. Hitzarmena tresna garrantzitsua da, baldintzak argitzen dituelako, eta alderdi bakoitzaren eginbeharrak zehazten dituelako; horrez gain, elkarrekiko konfiantza sortzeko eta elkarrekin bizitzen hasteko lehenengo urratsak ematen laguntzen du.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Elkarrekikotasun-irizpidea. Elkarrekin bizitzeko programa eta belaunaldiarteko programak ezin dira hartu hornitzaile baten eta hartzaile baten arteko akordiotzat. «Irabazi-irabazi» motako jarduera da, elkarrekikotasun-irizpidearen arabera. Alderdi bakoitzak bestearen ekarpena onartzen du, eta badaki erantzule dela beste alderdiaren aurrean.

Pertsonak jarraipen-prozesuetan integratzea. Oso garrantzitsua da jarraipen-prozesuetan beste pertsona batzuek parte hartzea. Beste pertsona horiek izan daitezke, adibidez, pertsona zaharren senitartekoak edo ikasleenak; eta haien zehaztu ahal izango dute arazorik dagoen elkarbizitza horretan.

Pertsona hartzaileak arriskuetatik babestea. Belaunaldiarteko bizikidetzaprograma bateko parte-hartzaileek arrisku batzuk izan ditzakete, eta talde sustatzaileek eta koordinatzaileek arrisku horiek ezagutu eta saihestu behar dituzte. Ebaluazioa eta egokitzapena egiten direnean, parte-hartzaileek arriskuak ezagutzen dituztela ziurtatu behar da, kasu bakoitzari dagozkion erabakiak hartu ahal izateko.



DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO GIZARTE
EKINTZA ETA INKLUSIO SAILA

accionsocial@deusto.es

T: 944 139 351

www.accionsocial.deusto.es

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

2

JAKINDURIA BABESTU

Karmengo Ama Ikastetxea.
Amorebieta-Etxano, Bizkaia.

**Ekarpena jasotzen duen
erronka nagusia:** Berrikuntza
eta IKT

**Parte hartzen duten
belaunaldiak:** Karmengo
Ama Ikastetxeko DBHko 4.
mailako ikasleak, Etxano
egoitzako pertsona zaharrak
eta Amorebieta-Etxano
eguneko zentroko pertsona
zaharrak.

**AZALPEN LABURRA**

Duela zenbait urte, Karmengo Ama Ikastetxea hasi zen First Lego League (FLL) erronkan parte hartzen. Helburua gazteen jakin-mina areagotzea da, zientziari, teknologiarri eta berrikuntzari buruzko arloetan. 2012. urtea Zahartze Aktiboa eta Belaunaldien arteko Solidaritatea sustatzeko urtea izan zen; hori dela eta, FLL erronka pertsona zaharren testuinguruan garatu zen. Karmengo Ama Ikastetxeko zazpi ikasleak, lau irakasleak eta 60 urtetik gorako pertsona batek zientziari eta gizarteari buruzko proiektu bat diseinatu zuten, Amorebieta-Etxanoko udalerriko pertsona zaharren beharrak aztertze. Beharrei irtenbide bat emateko asmoz, ekimen berritzailea proposatu zuten. Ekimenak belaunaldiarteko harremanak sustatzen ditu, ingurunearen parte-hartzea eskatzen du, eta zahartze aktiboa bultzatzen du.

FUNTZIONAMENDUA

FLL-ek ikasleei erronka berri bat proposatzen die urtero. Erronka horrek hiru zati ditu: alde teknikoa, alde

zientifikoa eta balioei buruzko alde bat.

Alde teknikoan, Karmengo Ama Ikastetxeak robot bat diseinatu zuen, pertsona zaharrei etxeko lanak egiten laguntzeko. Zientzia-arloari dagokionez, Amorebieta-Etxanoko pertsona zaharren premiak ezagutzeko azterlan bat egiteari ekin zion taldeak. Horretarako, egoitzako eta eguneko zentroko pertsona batzuek inkesta batzuk bete zituzten, eta taldeko kideek egoitzako erizaindegiko eta gizarte-langintzako langileak elkarrizketatu zituzten. Hori dela eta, pertsona horien zailtasun nagusiak ezagutu ahal izan zituzten: bakardadea, teknologia berriak erabiltzeko arazoak eta belaunaldiarteko ezagutzen transferentzia eskasa.

Zenbait aukera tekniko aztertu ziren, premia horiei erantzuten saiatzeko. Azkenean, proiektuaren alde soziala indartzea erabaki zuten, eta *Jakinduria babestu* proiektua sortu zen. Ekimeneke proposamenean artean jaso zen pertsona zaharrei zuzendutako zerbitzuak hobetzea, bai eta zahartze aktiboa sustatzeko ekimen berriak bultzatzea ere.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

FRAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

2

Jakinduria babestu proiektuan egiten diren jarduerak dagoeneko txertatuta daude ikastetxearen curriculum-proposamenean. Hona hemen jarduera batzuk: *lip-dubak*, ibilaldiak, egoitzatik kanpoko topaketak, bisitak egoitzan eta eguneko zentroan egitea, informatika-eskolak, etab. Pertsona zaharrekiko saioak antolatzen dituztenean, gazteek ideiak ematen dituzte talde-bileretan. Irakasleek eguneko zentrotako edo egoitzako ordezkariari ematen diete proposamenen berri; gero, elkarrekin aztertzen dituzte, eta zer proposamen garatu aukeratzen dute.

Bestalde, gazteek beren kasa abiarazi dituzte beste jarduera batzuk: esaterako, Irribarre goxo bat begi tximur bat alaitzeko kanpaina diseinatu zuten, boluntario gehiago erakaritzeko. Borondatezko parte-hartzaile horiei proiektua aurkeztu zieten; eta, horretarako, bideo bat grabatu zuten, *Jakinduria babestu* ekimena zer den azaltzeko. Ondoren, blog bat egin dute, eta bertan azaltzen dituzte bizi-penak eta proiektuaren ezaugarri berriak.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Proiektuaren irismen soziala. Pertsona gazteenek hainbat aukera (batzuk teknologikoak) aztertu zituzten, proiektua FLL erronkan aurkeztu ahal izateko. Azkenean, *Jakinduria babestu* proiektua garatzea erabaki zuten, diagnosian aurkitu zutelako pertsona zaharren premia nagusia harremanak ezartzea dela, bakardadea baztertzeko. Proiektuan, besteak beste, pertsona zaharrekin taldeko edo binakako (gazte bat eta adineko pertsona bat) irteerak antolatzea proposatu da. Irteeretan alderdi biei interesatzen zaizkien gaiak jorrotzen dira, eta etorkizuneko elkarrekintzak garatzeko aukera berriak ere sortzen dira. Proiektua aukera eman die gazteei

autoestimua handitzeko, berdintasun-printzipioa lantzeko eta gizarte-lan-gintzari, komunikazioari eta talde-lanari lotutako trebetasunak lantzeko.

Jarraitutasuna denboran. Lan horrek dagoeneko bi sari eskuratu ditu. 2013ko First Lego League lehiaketan Euskadiko txapeldunak izan ziren; eta estatuko FLL lehiaketan, zahartze aktiboari buruzko irtenbide berritzaileenari emandako saria ere eskuratu zuten. FLL erronka amaituta, proiektuak aurrera jarraitzen du, eta ikastetxean ikasleak, irakasleen laguntzarekin batera, ekimen berriak pentsatzen ari dira, gazteen eta zeharren arteko elkarrekintza sustatzeko.



KARMENGO AMA IKASTETXEA.

cmtzuzendaripe@telefonica.net

T: 946 730 935

eskailego12.weebly.com

Baliabide interesgarriak:

Informazio gehiago lor daiteke webgunean (irakasleei egindako elkarrizketak, parte hartzen duten ikasleei eta adineko pertsonari buruzko informazioa, etab.): www.relacionesintergeneracionales.net.

Prezi euskarran eginda dago, eta parte hartzen duten gazteek beraiek egin dute.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

3


YOS-CONCEPT. YOUNG AND OLD IN SCHOOL

August-Class-Schule (August Class Ikastetxea)

Harsewinkel, Alemania.

Ekarpena jasotzen duen erronka nagusia: Enplegua

Parte hartzen duten belaunaldiak: Erretiratuak, ikastetxeko irakasleak eta gazteak

**AZALPEN LABURRA**

YOS-Concept. Young and Old in School (Gazteak eta zaharrak elkarrekin ikasten) izeneko ekimenak Harsewinkel herriko gazteei aukera ematen die erkidegoan bertan prestakuntza eta enplegua lortzeko; horrela, gazteek gaitasunak garatzen dituzte, enplegu-aukerak sortzen dira, eta gazteek erkidegoan jarraitzen dute.

Pertsona erretiratuak honako arlo hauetako ezagutzak irakasten dizkiete ikasle gazteei: lorezaintza eta paisajismoa; eraikuntzan erabiltzeko igeltsuzko hormak; bizikleten mekanika; ingeniariaritzak; metalak; zurgintza; sabaiak; fotovoltaiak; automozioa; biltegien logistika; merkataritza-jardunbideak eta nekazaritza. Hori guztia eskolako eta herriko azpiegituretan egiten da, erabiltzen ez diren azpiegiturek baliaituta. Erretiratuarekin batera, laguntza zuzena ematen dute ikastetxeko irakasleek, gizarteko eragile batzuek eta eskualdeko enpresek.

FUNTZIONAMENDUA

Ostegunero, 10 erretiratu, 30 ikasle eta 4 irakasle lantalde txikietan biltzen dira, jarduteko. Lantaldeetan belaunaldi bakoitzeko pertsonen gaitasunak bateratzen dira, eta erkidegoaren garapen soziala eta pertsonala handitu egiten da. Gazteek prestakuntza jasotzen dute, eta bezeroen eskaerei erantzuten diete. Horretarako, beharrezko ekipoak dituen lantegi bat erabiltzen dute, eta bertan prestakuntza tekniko eta industrial eskuratzen dute. Lantegiaren helburu nagusia belaunaldiarteko eraikuntza da, eta, fasez fase, pixkanaka garatuz joaten da. Prestakuntza jasotzeko lehenengo saioetan, ikasleek erreferentzia-irakasleekin jarduten dute, eta, ondoren, pertsona erretiratu batek taldean laguntzen du, aditu gisa.

Erretiratuak irakasleekin biltzen dira, eta lan-prozesuak lan-arloen arabera antolatzen dituzte. Emaitzak onak baino hobek izan dira. Pertsona zaharrak

AZALPENEZKO ADIBIDEAK

ERAGILE SUSTATZAILEA: HEZKUNTZA-SISTEMA

prozesuan integratuta daude, eta ikasleek, irakasleek eta erkidegoak errespetatzen dituzte. Gazteek gaitasunak eskuratzen dituzte, eta, pertsona eta profesional gisa hazten dira. Irakasleek lanbideari buruzko ezagutzak ez ezik, irakasteko modu berriak ere ikasten dituzte.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Iraunkortasuna. YOS ekimenak enpresa pribatuen laguntzari esker eta lantegian bertan sortzen diren produktuen salmentari esker aurrera jarraitzen du. Inbertitzaile txiki askok bermatzen dituzte proiektuaren garapena eta iraunkortasuna, proiektuaren garapen txikiak ahalbidetzen dituztelako. Horrez gain, tokiko administrazioak, alderdi politikoek eta beste eragile batzuek laguntzen diote gazteen enplegua sustatzeko agenda osatzen. Bestalde, proiektuari esker, zailtasunak dituzten gazteek herrian gelditzeko aukera dute, eta ez dute beste ingurune batzuetara migratu behar; horren ordez, erkidegoko egitura soziala eta iraunkorra sortzen laguntzen dute.

Sareko lankidetzak. YOS ekimenak benetan erakusten du belaunaldiarteko lankidetzak. Belaunaldi guztietako pertsonak, talde formalek eta informalek, enpresek eta gizarteko eragileek parte hartzen dute ekimenean: enpresek ekipoak eta materialak ematen dituzte; sektore publikoak ekimena bideratzen du, eta ezagutzak partekatzen ditu, erakunde gisa; irakasleek eredu pedagogikoa ematen dute; eta pertsona partikularrek lantegirako dohaintzak eta materialak ematen dituzte. Hortaz, YOS ekimenean eraginkortasun handia lortzen da, hainbat ikuspegi bateratuta: gizartearena, hezkuntzarena, psikologikoa, ekonomikoa, belaunaldiartekoa eta eskualdekkoa.

Gunea aintzat hartzea. Eraikina, non ekimena garatzen baita, teknikari, industriari eta nekazaritzari lotutako ezagutzak, gizarte-ikaskuntza eta belaunaldi arteko ikasketak eskuratzeko gunea dela hartzen da erkidegoan. Lantegia egokitu denez, eta, enpresek ekarpenak egin dituztenez, ekimenak garapen berritzailea eduki ahal izan du.

Ikerkuntza eta emaitzen transferentzia. Proiektuan oinarrituta, ikastetxeek garatzen dituzten belaunaldiarteko programetan pertsona erretiratuak nola integratu ikertu da. Belaunaldiarteko programak eraginkorragoak dira, ikastetxeko plangintzan txertatuta baldin badaude. Ikastetxeek, ordea, prest egon behar dute gazteei ikasten lagundu nahi dieten pertsona zaharrei giza baliabideak eta euskarri fisikoak eskaintzeko.



AUGUST-CLASS-SCHULE

wolfgang.strotmann@gmx.de

www.august-claas-schule-foerderverein.de

Baliabide interesgarriak:

Azterlana: [Come On, Let's Try Together: An Intergenerational Approach in Vocational Preparation for Students](#)

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

4

**HEAR ME!
ENTZUN IEZADAZU!**

Ikerkuntza Unitatea: Esku-hartze psikosoziala zahartzaroan. Psikologiako Fakultatea. Valentziako unibertsitatea.

Gandía, Valentzia.

Ekarpena jasotzen duen erronka nagusia: Hezkuntza

Parte hartzen duten belaunaldiak: 55 urtetik gorako pertsonak eta eskola uzteko arriskuan dauden nerabeak (11 eta 14 urte).

AZALPEN LABURRA

Hear Me! (Entzun iezaazu!) belaunaldiarteko programaren helburua eskola utzi nahi duten nerabeei laguntzea da. Aholkuak eta orientabideak emateko prestakuntza duten pertsona zaharrek eskola uzteko arriskuan dauden 11 eta 14 urte bitarteko nerabeei laguntzen diete: gidatzaile gisa, eredu gisa, laguntzaile gisa; laburbilduz, zaharrek eskarmentua eta eskuraturako balioak erabiltzen dituzte, gazteek beren bizitzan orientabide gisa erabil ahal ditzaten.

Aldi berean, proiektuak zahartze aktiborako bidea sortzen du: zentzua ematen dio bizitzari, eta ekarpen soziala egiten du. *Mentorizazioa* (aholkuak eta orientabideak ematea) jokaera sortzailea da. Jokaera horren zati dira desioak, motibazioa, autoafirmazioa, altruismoa eta beste pertsona batzuei beharrezkoak eta baliagarriak sentiaraztea. Jokaera sortzaile horrek ongizate psikologikoa eta bizi-kalitatearen hobekuntza sustatzen ditu.

FUNTZIONAMENDUA

Proiektua 2010ean diseinatu zen, Espainian. 2011n, Gandian abiarazi zen, eta Esku-hartze psikosoziala zahartzaroan deituriko ikerkuntza-unitateak (*Unidad de Investigación Intervención Psicosocial en Envejecimiento*) koordinatu zuen (Valentziako Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia Saila).

Lehenengo asteetan, egoeraren diagnostia egin zen, eta proiektuaren koordinatzaileek elkarrizketak egin zituzten, aholkulari egokiak aukeratzeko. 55 urtetik gorako aholkulariak trebatzeko ikastaro bat diseinatu eta egin zen. Eduki teorikoak eta praktikokoak landu ziren, eta *learning-by-doing* (*eginez ikasi*) metodologia erabili zen.

Horrez gain, prestakuntza ematen zuten pertsonak ere trebatzeko beste ikastaro bat antolatu zen, 40 ordukoa. Gandiako Udalako Gizarte Ongizate Saileko 10 adituk parte hartu zuten.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

FRAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

Trebakuntza bukatutakoan, 10 aholkulari prest zeuden lanean hasteko; ondoren, bikoteak osatu ziren aholkulariekin eta 11-14 urte bitarteko gazteekin. Kontu handiz aukeratu ziren gazteak: inklusio-irizpideak hoberen betetzen zituztenek eta esku-hartzeari etekin handiena aterako ziotenek parte hartu zuten. Horretarako, gazte guztien espedienteak berrikusi ziren; izan ere, gazteek Gandiako Udaleko gizarte-bazterkeriaren aurkako programa batean nolabait laguntzen zuten.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Mentorizazioa. Mentorizazioa (gida edo aholkularitza) testuinguru berria sortzean datza. Testuinguru horretan, pertsona batek ezagutzak eta eskarmentua naturaltasunez eta eraginkortasunez jakinarazten dizkio beste bati. Elkarrekiko harremana eta harreman estua sortuko bada, honako hauek sustatu behar dira: gaitasunak (autonomia eta heldutasuna sustatzea); hurbiltasuna (ardura eta enpatia adieraztea); jarraitutasuna (epe ertaineko eta luzeko ondorioak) eta iraunkortasuna (erregulartasuna, fidagarritasuna eta egonkortasuna).

Ebaluazioa. Ebaluazioa egiteko erabili zen ereduak lkerkuntza/Ekintza Parte-hartzailea izan zen. Proiektuaren faseetan, ebaluazio-bilerak egin ziren aholkulariekin (hamabost egunez behin), teknikariekin (hamabost egunez behin) eta nerabeekin (hilean bi aldiz).

Aldi berean, proiektuak Gandian izan zuten eragina ere aztertu zen. Taldeko eta banakako elkarrizketak egin ziren aholkulariekin, nerabeekin eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin. Azkenik, proiektuaren azken ebaluazioa egin zen. Proiektua garatu zen herrialdeetan lan-bilera batzuk egin ziren bi urtean, hots, proiektua garatzeko epean.

Gandian, proiektuaren azken ebaluazioa egiteko bilerak antolatu ziren astebetean. Amaieran, saio ireki bat antolatu zen, eta proiektua errepikatzeke interesa izan lezaketen adituei gonbidapena bidali zitzaion.



UNIDAD DE INVESTIGACIÓN
INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL
EN ENVEJECIMIENTO
(IKERKUNTZA-UNITATEA: ESKU-HARTZE
PSIKOSOZIALA ZAHARTZAROAN).
VALENTZIako UNIBERTSITATEKO
PSIKOLOGIA FAKULTATEA.

sacramento.pinazo@uv.es

T: 963 983 027

[www.viauc.com/projects/hearme/
Pages/hearme.aspx](http://www.viauc.com/projects/hearme/Pages/hearme.aspx)

Baliabide interesgarriak:

Proiektua martxan jartzeko eskuliburuak:

www.viauc.com/hearme

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HEZKUNTZA-
SISTEMA

5

GÜRE AITON AMONAK

Güeñesko Udaleko Gugaz Gazteria Saila

Güeñes, Bizkaia.

Ekarpena jasotzen duen erronka nagusia: Gizartean integratzea

Parte hartzen duten belaunaldiak: Udalerriko gazteak eta zaharrak, besteak beste

**AZALPEN LABURRA**

Haxe da Gueñes udalerriko belaunaldiarteko proiektuaren helburua: aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea eta, pertsonen arteko loturak finkatuta, belaunaldien artean integrazio soziala eta afektiboa gartztea. Proiektua Gueñesko lau biztanlegune handitan (Sodupe, Zaramillo, La Quadra eta Gueñes) egin da. Ekimena Udaleko Gugaz Gazteria Sailak proposatu zuen, udalerriko zaharren egoitzetan dinamizazio-ekintzak falta zirela ohartuta. Premia horiei erantzuteko, Gugaz sailak zenbait ekintza antolatu ditu, belaunaldiarteko elkarrekintza bultzatzeko, gizarte-harremanak eta integrazioa sustatzeko, eta berrikuntza-jardunbideak martxan jartzeko, sektore guztiek parte hartuta. Horren harira, Gugaz-ek boluntario gazteen mugimendua antolatu du, *Gugaz Bolunta* proiektuaren bidez. Pertsona zaharrek eta gazteek elkarrekin antolatu dute egitarau bat, eta etekina ateratzen diote gazteek, zaharrek eta udalerriko herritar orok.

FUNTZIONAMENDUA

Ekimenaren ekintzak sei bloketan antolatu ziren 2014an:

Güre Aiton Amonak ikus-entzunezkoa: Gueñesko udalerriko pertsona zaharrek ikus-entzunezko erreportajea egin zen. Erreportajea, udalerraren azken urteotako historia kontatzen dute bi herritarrek, beren bizipenen bidez. Aurretik, Zaramillo eta La Quadra biztanleguneetan beste bi dokumental egin ziren. Udalerriko musika-talde batek, pertsona zaharrek batera, bideoklip bat egin zuen, eta dokumentaletan jaso zen.

Nire Aiton Amon Berria: belaunaldiarteko topaketak antolatzen dira, eta gazteek eta zaharrek ezagutzak trukatzeko dituzte: adibidez, teknologia berriei buruzko ezagutzak eskuz egindako objektuen truke.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

FRAGILE
SUSTATZAILEA:
HERRI
ADMINISTRAZIOA

GÜRE AITON AMONAK EKINTZAK

Mota guztietako tailerrak antolatzen dira: kontzertuak, zinema dokumentalari buruzko zikloak, teknologia berriak, atzerrira bidaiatu duten Gueñesko pertsonen hitzaldiak edo Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Eguna den azaroaren 25ari buruzko bideo-iragarki bat egitea, etab.

Güre Aiton Amonak bloga egitea: proiektuan parte hartzen duten pertsona gazteek zein zaharrek idazten dute blogean.

Güre Aiton Amonak – Kirola: zenbait ekintza antolatzen dira (gimnasia terapeutikoa, igeriketa, etab.).

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Parte-hartzea eta borondatezko lana sustatzea udalerrian. *Güre Aiton Amonak* ekintzaren bidez, gazteek zein zaharrek aukera dute mundu eta udalerrri hobearen aldeko jarduerak egiteko, boluntario gisa. Udalerriko boluntarioek interes sozialeko ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dute, eta beren denbora, ezagutzak, eskarmentua eta lana eskaintzen dituzte solidaritatea bultzatzeko.

Proiektua udalerriko beste jarduera batzuekin bateratzea. Belaunaldiarteko programek udalerriko pertsonen zein ekintzen arteko lankidetzeta eta harremanak bultzatzen dituzte. Udalerriko beste jarduera batzuek, azkenean, belaunaldiarteko elementuak barneratzen dituzte, eta elkarren osagai bihurtzen dira. Adibidez, Emakumeen aurkako Indarkeria salatzeko Egunean, azaroaren 25ean, bideoklip bat, gazteen eta zaharren artean grabatuta, zabaldu zuten; eta haiek egin zituzten produktu batzuk saltzen dira udalerriko merkatu solidarioetan.



GÜEÑESKO UDALEKO GUGAZ GAZTERIA
SAILA

info@gugaz.org

T: 946 693 736 (arratsaldean);
946 690 977 (goizean)

www.gugaz.org

Proiektuaren bloga: <http://gugazsolidario.org/>

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HERRI
ADMINISTRAZIOA

6

**BELAUNALDIARTEKO
ORTUA**

Taramundiko Udala

Taramundi, Asturias.

**Ekarpena jasotzen
duen erronka nagusia:**
Iraunkortasuna

**Parte hartzen duten
belaunaldiak:** Pertsona
gazteak eta zaharrak

**AZALPEN LABURRA**

Asturiasko kontzejuko Taramundiko Udalak Drogen aurkako Plana eta *Rompiendo Distancias* (Distantziak ezabatzen) deituriko plana antolatzen ditu. Plan horiek garatu bitartean ohartu ziren ohitura osasuntsuagoak irakatsi behar zaizkiela gazteei, arazoei aurrea hartzeko metodo gisa. Horretarako, belaunaldiarteko ortu bat garatzeko programa diseinatu zuten, eta pertsona zaharren elkarrekin, kontzejuko ikastetxeak, boluntarioek, ingurumen-heziketako adituek eta familiek parte hartu zuten. Horrela, ikasteko modu berri bat sortu zen eskolan, ingurumen fisikoa eta soziala aztertuz, beste eragile batzuen parte-hartzearekin batera. Hori dela eta, belaunaldiarteko ikaskuntza bultzatu da, belaunaldien arteko loturak sendotu dira, eta lantaldea, solidaritatea eta ingurumena zaintzeko ardura ere sustatu dira. Eta, hori guztia lortu da, gazteek, helduek eta zaharrek elkarrekin izan duten bizipen baten

bidez. UNICEFek Jardunbide Egokiak izeneko saria eman zion proiektuari, «Familia Ingurune Egokia» deritzon kategorian. Zehazki, Haur Eskubideei eta Udal Politikei buruzko V. Lehiaketan, 2010ekoan, jaso zuten saria.

FUNTZIONAMENDUA

Proiektuan zenbait fase garatu dira: diseinua, koordinazio-bilerak, aurkezpen-bilerak, hedapena, boluntarioak aurkitzea, lur-zatia aurkitzea (kontzejuko biztanle batek laga zuten). Fase bakoitza programatu eta ebaluatu egin da. Pertsona zaharren eta gazteen arteko lan-saio batzuk antolatu ziren: lehenengo saioetan ikasleek aukera izan zuten ingurunea hobeto ezagutzeko eta ingurunea zaindu beharraz gehiago ohartzeko. Horrez gain, lurra lantzeko tresnak eta haziak ezagutu zituzten. Geroago, gazteenak ortura joan ziren, eta beharrezko ekintzak egin zituzten, ortua zaintzeko: garbitzea, produktuak lantzea, ureztatzea... Aldi berean,

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HERRI
ADMINISTRAZIOA

gazteek eta helduek ezagutzak trukatu zizkioten elkarri, nekazaritza-jardunbide ohiei eta berriei buruz.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Erkidegoa indartzea. Belaunaldiko ortuak gunee integratzaileak bilakatu dira, bertan adin ezberdinetako pertsonak aritzen direlako. Gainera, gizarte-loturak eta herritarren parte-hartzea sustatzen dira, eta guztiek laguntzen dute erkidego iraunkorra egiten, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegietatik. Aldi berean, lurrarekiko lotura berreskuratuz, irizpide iraunkorrak ezarri eta ohitura osasuntsuagoak bultzatzen dira.

Konpromisoa. Proiektuaren aurrekontua oso txikia da (urtean 800 €-tik beherakoa); beraz, proiektuaren arrakasta belaunaldi ezberdinetako herritarren parte-hartzean eta lankidetzan oinarritzen da. Lan-ereduaren oinarriak hauek dira: lankidetzaren, konpromisoa eta parte-hartzea sustatzea; taldeen dinamizazio egokia ziurtatzea; ortua topagunetzat hartzea; eta baliabideak partekatzea. Horrek guztiak belaunaldiarteko lotura indartzen du. Pertsona parte-hartzaile guztiek nahi dute ekimenak aurrera jarraitzea, guztiei interesatzen zaielako.



AYUNTAMIENTO DE TARAMUNDI
(TARAMUNDIKO UDALA).

ayto@taramundi.net
rompiendodistancias@taramundi.net

T: 985 646 701

www.taramundi.es

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HERRI
ADMINISTRAZIOA

7

MIX@GES

Institut für Bildung und Kultur e.V.

Europako zenbait herrialde: Alemania, Austria, Belgika, Eskozia eta Eslovenia.

Ekarpena jasotzen duen

erronka nagusia: Berrikuntza eta IKT

Parte hartzen duten

belaualdiak: 14 eta 20 urte bitarteko gazteak, 50 urtetik gorako helduak eta artista helduak

AZALPEN LABURRA

Europako bost kidek egin dute *Mix@ages* europar proiektua, eta Bizitza Osoan Ikaskuntza bultzatzeko deialdiaren bidez (2011-2013 urte bitartean) finantzatu dute. Belaunaldien artean sormen-trukea sustatzea da proiektuaren helburua, euskarri digitalen erabilera artistikoaren arloko ikuspegiak eta metodo berritzaileak aztertuz. Proiektua egin zen herrialdeetan, kideek tailerrak antolatu zituzten komunikazio digitala garatzeko modu berriak eta sortzaileak sortzeko. Ekimenean parte hartu zuten tokiko erakundeek, hala nola museoek, eskolek eta gazteei zein zaharrei lotutako erakundeek. Belaunaldien arteko haustura eta haustura digitala laburtzeko asmoz diseinatu zen proiektua. Guztira, belaualdiarteko 15 tailer antolatu ziren, eta artistek eta adituek zuzendu zituzten:

- **As we see it... Digital Photography.** Glasgow hiriko talde komunitario bateko hiru gaztek eta hiru helduk bost tailerretan parte hartu zuten, eta hiriko arkitektureari buruzko argazkien collagea egin zuten. Ondoren, lana Strathclyde-ko Unibertsitatean erakutsi zen.

- **Tagging sculptures.** 15 eta 17 urte bitarteko gazte eta 60-75 urtetik gorako pertsona artistekin bildu ziren Alemaniako Duisburg herriko Lehmbruck museoan. Bileretan ikasten zuten nola sortu lagin eszenikoak zuzenean, museoko eskulturen eta arkitekturearen animazioaren bidez. Horretarako, Tagtool tresna erabili zuten. Marrazketa- eta animazio-tresna da: artelanei mugimendua gehitzen die, aplikazio mugikorraren bidez.
- **Mix@ages musicians.** Eskoziako Errege Kontserbatorioan ikasten ari ziren 19 urtetik gorako hiru gazte eta Later Life Traditional Music Club musika-klubeko lau heldu bildu ziren, musika-adierazpideak, abestiak eta iruzkinak euskarri digitaletan sortzeko moduak aztertzeko. E-mailtzak honako wiki honetan eskuragarri daude: <http://mixages-musicians.wikispaces.com>.
- **Mugikorraren bidezko argazkiak,** Eslovenian. Belaunaldiarteko lan-tailerrak: mugikorraren bidez hartutako argazkiak erabilita, elkarrekin ikasteko, artea partekatzen eta sortzeko.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
BESTE ERAGILE
BATZUK

- **Passing Memories #1, 2, 3.** 18 eta 22 urte bitarteko gazteek eta 60 eta 90 urtetik gorako pertsonak zinema-laburmetriak egin zituzten iPod-en bidez, zinema-zuzendari baten laguntzarekin batera. Haietako bat, Ada, zenbait jaialditan ikusgai egon da. http://mixages.eu/?portfolio_33=passing-memories-2
- **Glasgow 2014.** Gazte eta heldu batzuek, gizarte-erakunde baten laguntzarekin batera, gailu mugikorretan erabiltzeko aplikazio bat sortu zuten. Aplikazioaren bidez, 2014ko Commonwealth-eko Jokoak prestatzeko lanen garapena ikusi ahal izan zen.
- **Suburb – City – Home.** 16 eta 19 urte bitarteko gazteek eta 62 eta 81 urtetik gorako pertsonak, blog-sortzaile batek lagunduta, blog bat sortu zuten, Koloniako Gorlinger Zentrum aldiriko eguneroko bizitzari buruzko zenbait ikuspegi lantzeko. www.generationenblog.de
- **Chance Arrangements.** Salzburg herriko «John Cage and...» erakusketa inspirazio-iturri hartuta, gazteek eta zaharrek zenbait artefaktu erabili zituzten. Ikusentzuleek eta ikuspegiak artefaktuen esanahia aldatzen zutela erakutsi zuten. Artefaktuek sekuentzien bidez dokumentatu ziren, tresna digitalak erabilita. Azkenean, bideo bat sortu zuten, eta ikusgai dago webgunean.
- **Abstract Light.** Ikus-entzunezko teknikan aditua den artista baten gidaritzapean, gazteek eta helduek bideoak egin zituzten elkarrekin, Modul8 programa erabiliz. (Ikus <https://vimeo.com/user10073104/videos>).
- **Listening to modern art.** Villa Stuck Museoko audio-gida bat sortu zen proiektuan, Gunter Sachs arteari buruzko erakusketarako.
- **The Young. The Old. The Naked.** Filmak sortzea atsegin zuten 12 gaztek eta zenbait helduk argazkiak

egin eta ikuskizunak, elkarriketak, audio-fitxategiak eta testu-mezuak grabatu zituzten, *The Naked Man* erakusketaren inguruan. Ekimena Lentos Kunstmuseum Museoan egin zen. Sortutako edukiak eskuragarri zeuden, museoko bisitariek gailu mugikorretan jaso ahal izateko. <http://app.lentos.at/mixages/>

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Ebaluazioa. Tailer guztien ebaluazioa egin zen. Horretarako, galdera-sortak banatu, eta parte-hartzaileek, laguntzaileek eta antolatzaileek bete zituzten. Ebaluazioaren ezaugarriak:

- Testuinguruaren ebaluazioa: parte-hartzaileen esperientzia belaunaldiko tailerretan.
- Baliabideen ebaluazioa: baliabide digitalen erabilera eta laguntzaileen trebetasunak.
- Prozesuaren ebaluazioa: motibazioa, elkartrukea eta ikaskuntza prozesuan zehar.
- Esperientziaren ebaluazioa: belaunaldiarteko ekintzen eragina; motibazioa, jarrera eta harremanak barne hartuta.
- Produktuaren ebaluazioa: tailer bakoitzeko esperientziaren azken emaitza.
- Eraginaren ebaluazioa: eskuliburua egitea, belaunaldiarteko sustapena egiteko tresna-kutxa gisa erabiltzeko.



INSTITUT FÜR BILDUNG UND KULTUR e.V.

fricke@ibk-kultur.de

T: +49 2191 794294

www.mixages.eu

Baliabide interesgarriak:

Proiektuari buruzko eskuliburua:

Mix@ages

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
BESTE ERAGILE
BATZUK

8

**WILD, WILD WOMEN.
BELAUNALDIARTEKO
JARDUERA ARTISTIKOA,
10 URTEAN, THE WOMEN
LIBRARY LIBURUTEGIAN
MAGIC ME.**

Londresko Tower Hamlets
herriko Udala, Ingalaterra

**Ekarpena jasotzen duen
erronka nagusia:** Gizartean
integratzea

**Parte hartzen duten
belaunaldiak:** emakume
gazteak, helduak eta zaharrak



AZALPEN LABURRA

2004tik 2013ra, Magic Me erakundeak hamar proiektu hamar urtean garatu ditu, The Women Library (Emakumeentzako Liburutegia) liburutegiarekin eta Mulberry School (Emakumeentzako Ikastetxea) ikastetxearekin batera. Proiektuak Londresko ekialdean bizi diren emakume helduei zuzenduta daude. Urte bakoitzean, emakume gazteak eta zaharrak liburutegian elkartu dira, eta emakumeen gaineko istorio-bilduma bat, materialak eta liburuak aztertu dituzte bilertan. Horrez gain, artista profesionalekin batera aritu dira, artelanak, emanaldiak, erakusketak eta ekitaldiak antolatzen.

Urtero aukeratu dute liburutegiaren bilduman oinarritutako gai bat. Besteak beste, honako gai hauek jorratu dituzte: edertasuna, emakumeen ahotsa, utopia eta maitasuna. Programaren helburua urtero izan da honako arazo hauek konpontzen

saiazea: adin ezberdinetako emakumeen arteko harreman-eza; kultura, etnia eta sinesmen ezberdinetako pertsonen arteko harreman, elkarrekintza- eta ulermen-eza; gizartean isolatuta sentitzea; eta emakumeei ikaskuntza-aukera gehiago nola eman. Erronka horiek aintzat hartuta, emakume gazteak eta zaharrak bildu dira proiektuan, zenbait gai interesgarri lantzeko. Proiektua elkarrekin egin izan ez balute, emakume horiek nekez bilduko ziren, eta aukera gutxi izango zuten, harreman onak sustatzeko. Proiektuan garatu ziren harremanen bidez, adinari, kulturari, taldeei eta banakako pertsonen buruzko aurreiritziak ezabatu ziren, eta norberaren ideiak eta ikuspegiak adierazteko gunea bermatu zen.

FUNTZIONAMENDUA

Asteko saioak egin dira: eskola-orduak amaitu ondoren antolatzen ziren, edo oporraldietan. The Women Library liburutegiko bildumetako materialek

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
BESTE ERAGILE
BATZUK

proiektuaren ardatza osatzen zuten. Emakumeek materialei buruzko bile-rak egiten zituzten, material horietan adituak ziren pertsonak lagunduta. Topaketa horiek aukera ematen zieten haien bizitzari buruz hitz egiteko; gainera, gune berezia sortzen zen, non emakumeek, elkarrekin hitz egiteaz gain, konpromisoak hartu, ezagutza berriak eskuratu eta elkar ulertzeko modu berriak topatu baitzitzaizkaten. Urtean behin, ekintza bat diseinatzen zuten: emanaldia, artelana, erakusketa edo jende guztiei zuzendutako ekitaldiren bat.

Agerikoa da, ekimenari esker, emakume gazteek eta zaharrek aukera izan dutela eskarmentu handiko artista profesionalekin egoteko. Hor-taz, ezagutza eta trebetasunak garatu dituzte: 2D eta 3D irudiak egitea, sormen-idazketa lantzea, ahozko gaitasunak hobetzea eta ikuspegi kritikoei lotutako trebetasunak garatzea.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan parte hartzea. Proiektua urtero ebaluatu da, bai prozesua garatu bitartean, bai amaieran. Parte-hartzaileei ideiak eta iritzia ematera animatu zitzairen, proiektua osatzeko. Hurrengo urterako gaia askotan sortzen zen aurreko urtearen ebaluazioa egiten zenean, edo parte-hartzaileen arteko solasaldietan.

Bizitzan izandako esperientzietatik ikastea. Emakumeek beste emakume batzuen esperientziak, iraganekoak edo gaur egunekoak, ezagutu dituzte, eta, ikasi egin dute. Izan ere, beste belaunaldi batzuetako eta beste kultura batzuetako bizimoduak ulertzeko aukera izan dute.

Beste emakume batzuekin elkar-lanean aritzea. Proiektuak ikaskuntza sustatu du, hainbat baliabide erabili-ta: entzutea, ulertzea, ikuspegi ezber-dinak ulertzea eta premia sozialei eta politikei buruz eztabaidatzea. Emaku-meeek elkarrekintza soziala, aurkezpenak, jendaurreko aurkezpenak, eta, oro har, komunikatzeko konfiantza landu dituzte.



MAGIC ME

susanlangford@magicme.co.uk

T: +44 20 3222 60604

www.magicme.co.uk

Baliabide interesgarriak:

Proiektuaren [webgunean](#) eta, zehazki, [Wild Wild Women](#) txostenean azalduta dago proiektua, ekimen bakoitzari buruzko zehaztasunak adierazita. Horrez gain, proiektuaren emaitzak ere txostenean bilduta daude.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
BESTE ERAGILE
BATZUK

9

CIBERMANAGERS

Pantallas Amigas (Pantaila adiskideak)

Bizkaia, Gipuzkoa, Andaluzia eta Paraguay.

Ekarpena jasotzen duen erronka nagusia: Berrikuntza eta IKT

Parte hartzen duten belaunaldiak: 12 eta 18 urte bitarteko nerabeak, *cibermanager* aritzeko. Belaunaldi guztiak dira ziber-kudeatzaileen ekintzen xede ikusleak

**AZALPEN LABURRA**

Ikasteko eta zerbitzu solidarioa egiteko proiektua da. Helburuak IKTen erabilera segurua eta osasuntsua bultzatzea eta interneteko bizikidetzaren sustatzea dira. Gero eta arazo gehiago sortzen dira, IKTak era desegokian erabiltzeagatik; hortaz, arazo horiei irtenbide emateko asmoz sortu zen proiektua. Proiektuaren ikuspegitik, adinez txikikoak eta nerabeak arazoaren biktimatzat hartu beharrean, arazo konpontzeko eragiletzat hartzen dira.

12 eta 18 urte bitarteko nerabeek prestakuntza jasotzen dute, gako diren zenbait gairen inguruan. Horrez gain, metodologia egokiak ikasten dituzte, ezagutza horiek Lehen Hezkuntzako ikasleei zein helduei jakinarazteko. Ikasleak ikastetxe berekoak, beste ikastetxe batzuetakoak edo eskolatik kanpokoak izan daitezke.

Besteak beste, honako onura hauek ditu:

- «Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioa» proiektuaren onurak: balioak, eza-gutzak eta gizarte hobea lortzeko gaitasunak.
- Berdinen artean ikasteak izaten dituen abantailak.
- Ikasleek internet eta sare sozialak seguruago eta erantzukizun handiagoz erabiltzen ikasten dute. Gainera, *ciberbullying*-ari aurrea hartzeko jardunbide egokia da.

FUNTZIONAMENDUA

Printzipioz, hiru fase daude: ikasleen prestakuntza, *ziber-kudeatzaileen* berariazko prestakuntza eta prestatutako gazteek zerbitzu egitea. Oro har, ikasleek 11 prestakuntza-ordu egin behar dituzte; ondoren, oinarritzotzat

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

jotzen diren hiru zerbitzu egiteko prest daude: bi jarduera egiten dituzte Lehen Hezkuntzako ikasleekin, eta beste bat helduekin. Orokorrean, egin nahi den zerbitzuaren edo ariketaren arabera zehazten da prestakuntza-aren iraupena. Zerbitzua nolakoa den, halakoa izan beharko du prestakuntzak.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Ikaskuntza eta zerbitzua. *Cibermanagers (ziber-kudeatzaileak)* proiektuaren bizipena «Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa» estrategian datza. Hezkuntza-metodologia da, eta bertan bateratzen dira erkidegoari zerbitzu egitea, edukiak ikastea, trebetasunak gartztea eta balioak eskuratzea. Batetik, ikaskuntzak zerbitzua hobetzen du; eta, bestetik, funtzio pedagogikoa eta funtzio solidarioa batera egiten dira.

Erreplikagarritasuna. Egun arte, Bizkaiko, Gipuzkoako, Andaluziako eta Paraguayko 25 ikastetxetan baino gehiagotan egin da proiektua. Haietako batzuetan urtez urte erreplikatu da ekintza, eta, guztietan egiaztatatu da ereduaren eraginkortasuna. Proiektua egin aurretik, ikastetxean beharrezko plangintza eta koordinazioa egin behar dira; horrez gain, proiektua ebaluatzeko sistema ere ezarri behar da.



PANTALLAS AMIGAS

info@pantallasamigas.net

T: 944 417 512

www.cibermanagers.com

Baliabide interesgarriak:

[Zerbikas-en gida praktikoa-Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa](#)

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

10

TOPAKETA KULTURALAK ETA INTEGRATZAILEAK ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEKIN ETA EGOITZAN BIZI DIREN MENDEKO PERTSONA ZAHARREKIN

ADSI (Bestalde) Fundazioa eta
Aspaldiko (egoitza) Fundazioa
Portugalete, Bizkaia

**Ekarpena jasotzen duen
erronka nagusia:** Gizartean
integratzea

**Parte hartzen duten
belaunaldiak:** Askatasunik
gabe dauden edo egon
diren pertsonak, adin
ezberdinetakoak; egoitzan
bizi diren pertsona zaharrak
eta erakunde bietako
profesionalak eta boluntarioak.

AZALPEN LABURRA

Proiektuaren helburuak, batetik, sentsibilizatzea, integratzea eta elkarrekin bizitzeko gune naturalak sortzea dira; eta, bestetik, desberdinak diren baina gizartean baztertuta izateko arriskuan dauden bi egoera erlazionatzea. Zehazki, bi talde dira proiektuaren hartzaileak. Honako hauek dira: Aspaldiko egoitzan bizi diren eta mendekotasun-egoeran dauden pertsona zahar instituzionalizatuak; eta ADSIS Fundazioko Eguneko Zentroko pertsonak, askatasun gabekak.

Proposamena belaunaldiarteko bizi-penak eta kultura arteko esperientziak sustatzean datza. Zehazki, asteroko ekintza terapeutikoak egitea proposatu da.

Ekintza horiek programatzen ditu talde dinamizatzaile batek. Taldea osatzen dute hezitzaileek, langileek, boluntarioek eta askatasunik gabeko pertsonak. Astero, gutxi gorabehera, 24 eta 36 pertsona zahar eta 4 edo 8 preso edo preso ohiak elkartzen dira

egoitzan. Pertsona zaharrek profil desberdinak dituzte (ez dute nariadura kognitiborik, eta nariadura arina edo neurrizko nariadura dute; batzuek mendekotasun fisikoa dute, eta, beste batzuek, ordea, ez). Errealitate bien arteko harremanak sortzen dira, errespetuaren, tolerantziaren, ezagutzen eta elkarrekiko laguntzaren ikuspegitik. Motibazioa suspertzeko eragile bihurtzen dira askatasuna ez duten pertsonak eta boluntarioak, eta haiek laguntzen dute ekintza garatzen.

Proposatzen diren jarduerak aisialdi terapeutikoari lotuta daude: jarduera psikoestimulatzaileak, psikomotorrak, soziokulturalak, erkidegoko jarduerak, irteerak, etab. Laburbilduz, askatasunik gabeko pertsonak gizarteratzeko prozesuak lantzen dituzte, esperientziaren bidez. Pertsona zaharrak integratio-eragileak dira, eta ilusioa eta eskarmentua transmititzen dizkiete;

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

baina, batez ere, aurreiritzirik eta este-reotiporik gabe, erabilgarriak eta estimatuak sentiarazten dituzte, eta maite egiten dute.

Azkeneko helburua mendekotasun-egoeran dauden pertsona zaharrek eta askatasunik gabeko pertsonak elkarri laguntzeko prozesu batean parte hartzea da. Prozesuan zehar autoestimua handituko da, baliagarriak sentituko direlako, eta eraldaketa bultzatzeko eragileak izango direlako. Proiektuan zehaztuta daude parte-hartzaile bakoitzak lortu beharreko helburuak: pertsona zaharrei buruzkoak; askatasunik gabeko pertsonen buruzkoak; bi taldeei zuzendutakoak; jendarte orokorrari zuzendutakoak; pertsona zaharren senitartekoei buruzkoak; eta boluntarioei lotutakoak. Askatasun gabeko pertsonen eta pertsona zaharrei, hots, talde biei zuzendutako helburuak dira, besteak beste, elkartzea, bizikidetzaren bultzatzea, belaunaldiarteko eta kultura arteko harreman onak sustatzea, pertsonak baliagarri sentiaraztea eta sortzen diren topaketa txikietan bizitza-proiektuak bultzatzea.

FUNTZIONAMENDUA

Esku-hartze globala eta malgua egiteko metodologia garatu da, talde horietan uztartzen diren faktore anitzei erantzun integrala emateko. Bate-tik, laguntza pertsonalizatua egiten da pertsona zaharrek eta askatasunik gabeko pertsonekin; eta, bestetik, talde bietan lantzen da taldeko harremana.

Proiektuaren fase batean talde bietako pertsonak hautatzen dira; beste fase batean, harrera egiten zaie pertsonen eta erakundearen arteko aurkezpenak egiten dira; azkenik, hirugarren fasean, askatasunik gabeko pertsonen jakinarazten zaizkie pertsona zaharren ezaugarriak, eta komunikazioa, harremanak eta trebetasun sozialak lantzen dituzte. Horrez gain, ekintzak

garatzeko moduen gaineko prestakuntza ere jasotzen dute.

Askatasunik gabeko pertsonen laguntzarekin batera, jarduera programatzen da, eta astero joaten dira egoitzara; bertan, topaketa, haien arteko harremanak eta elkarrekiko laguntza sustatzen dira.

Prozesuan zehar, alderdi guztiek parte hartzen dute programaren ebaluazio jarraituan, eta elkarrekin egiten dute azken ebaluazioa, etorkizuneko esperientziak hobetu ahal izateko.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Taldea eta pertsonak zaintzea. Ekimen honen baliabideak elkarrekiko laguntza, elkarriketak, pertsonen arteko topaketak, taldearen dinamika, aktiboki parte hartzeko konpromisoak, zintotasuna, errespetua eta elkarri entzutea dira. Parte-hartzaile guztiak onartu egiten dituzte.

Parte-hartzaileek prestakuntza jasotzen dute, eta parte hartzen dute ekimenaren diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan. Askatasunik gabeko pertsonen prestakuntza jasotzen dute oinarriko komunikazio-teknikak, trebetasun sozialak eta jarduerak garatzeko moduak lantzeko. Horrez gain, plangintzan eta ebaluazioan ere parte hartzen dute.



ASPALDIKO FUNDAZIOA
aspaldiko@aspaldiko.org
 T: 944 625 000
www.aspaldiko.org

FADSI FUNDACIÃO
 (Bestalde Eguneko Zentroa)
bestalde@fundacionadsis.org
 T: 944 13 07 51
www.fundacionadsis.org

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

BARAKALDO ATZO ETA... PORTUGALETEKO FILM-PROGRAMAK

Hartu Emanak elkartea.
Barakaldo eta Portugalete.
Bizkaia

**Ekarpena jasotzen duen
erronka nagusia:** Hezkuntza

**Parte hartzen duten
belaunaldiak:** Pertsona
zaharrak, DBHko 4. maila,
Batxilergoko 2. maila, gazte
immigranteak eta ikastetxeko
irakasleak.



AZALPEN LABURRA

Hartu Emanak elkarteak *Barakaldo atzo...* XX. mendeko Barakaldori eman begiratu bertako protagonisten begien bidez ekimenaren bidez, ikasgeletara hurbildu nahi izan dute Barakaldo herriaren bilakaera historikoa. Horrela, ikasleek protagonisten ahotik ezagutuko dituzte herriaren historia, gizartea eta kultura. Barakaldoko udalerraren historia oso lotuta dago meatzaritzari eta burdingintzari; izan ere, eskualdeko garapen ekonomikoaren motorrak izan ziren. Jarraera horiek XX. mendearen amaieran desegin ziren; beraz, udalerraren testigantza fisikoak ere ezabatu ziren. Horregatik, are garrantzitsuagoak dira ahozko testigantzak: iragan hurbila hainbat ikuspegitatik aztertzeo aukera ematen digutelako.

Hartu Emanak elkartea 2005. urtean hasi zen proiektua garatzen, Barakaldoko Udaleko Hezkuntza Sailarekin eta ikastetxeetako irakasleekin (DBHko 4. maila eta Batxilergoko 2. maila) batera. Proiektuan hitzaldiak antolatu dituzte, eta honako gai hauek hartu dituzte hizpide:

nekazaritza eta abeltzaintza, Nerbioi itsasadarreko industrializazioa; meatzaritza eta burdingintza, industrializazioaren motorrak; meatzaritza, teknikaren eta gizartearen ikuspegitik; burdingintza, teknikaren eta gizartearen ikuspegitik; burdingintza-prozesua; Barakaldoko migrazio-mugimenduak, meatzaritzaren eta burdingintzaren garapenaren ondorioz; kooperatibak, ekonomia sozialaren eredu gisa; zahartzea XXI. mendearen atarian; merkataritzaren eta finantza-erakundeen bilakaera.

Guztira hamabi ikastetxek parte hartzen dute proiektuan. Batez beste, 40 hitzaldi ematen dira ikasturte bakoitzeko, eta 25 ikasle etortzen dira hitzaldi bakoitzera.

Horrez gain, kultura arteko dimentsioa ere lantzen da ekimenean. *Compartiendo Historias* (Istoriok elkarrekin partekatzea) izenburupean, Don Bosco Gizarte Gelan antolatzen dira asteroko saio batzuk, zeinetan pertsona zaharrek eta etorkinek elkarrekin hitz egiten baitute, eta gaur egungo gai buruzko iritziak ematen baitituzte. Helburua Barakaldoko

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

etorkin gazteei laguntzea da, gizar-tean hobeto integra daitezten.

Aldi berean, Hartu Emanak elkar-teak beste ekimen bat sustatzen du Portugaleten. Gazteen eta zaharren arteko topaketak antolatzen dira, fil-mei buruzko eztabaidak, hausnarke-tak edo solasaldiak egiteko. Topaketa horiek egiten laguntzen dute Portuga-leten Udalak (gizarte-zentroen bidez), Adaka Boluntariorza Sustatzeko Zerbi-tzuak, Aspaldiko Fundazioak eta gaz-teen eta helduen ikastegi batzuek. Eguneroko bizitzaren egoerak azter-tzeko baliabide gisa erabiltzen da zinema: parte-hartzaileek testuin-guru berari buruzko ikuspegi eta iritzi ezberdinak ematen dituzte; bizitza-es-perientzia desberdinak elkarri kon-tatzen dizkiote; zenbait bizipen gogo-ratzen zaizkie; edo desioak irudikatzen dituzte. Pelikuletako istorioen gaineko hausnarketen bidez, pertsonen bizi-ka-litatea hobetu nahi da.

Belaunaldi arteko zinema-proiektue-tan pelikulan ikusitakoa eztabaida-tzea proposatzen da. Topaketa egin aurretik, gazteek eta zaharrek haien artean hitz egiten dute filmari buruz. 25 gaztek eta 25 zaharrek parte hartu ohi dute. Belaunaldiarteko lan-mahaiak antolatzen dira, eta mahai bakoit-zean 10 pertsona, gazte eta zahar, biltzen dira. Pelikulari buruzko galde-ra-sorta bat bete behar dute, eta mahai-talde biek galderak eztabai-datu behar dituzte, elkarrekin ikasteko. Ondoren, mahai bakoitzean lortutako emaitzak pertsona guztiei jakinarazten dizkiete, eta belaunaldiarteko gaietan aditua den pertsona batek koordina-zio-lana egiten du.

FUNTSEZKO OINARRI BATZUK

Ahozko testigantzak ikasbaliabideak dira gizarte-zientziak irakasteko. Uda-lerria iraganean ezagutu duten eta bertan bizi diren pertsonen ahozko testigantzak baliabide eraginkorrak

dira: hurrengo belaunaldiko pertsonei herriaren iragan industrialia ezagutzen, orainaldia ulertzen eta etorkizuna iru-dikatzen laguntzen dietelako.

Proiektu partekatuak. Herri bat hezi-tzailea izango bada, ezinbestekoa da belaunaldiarteko ekimenen disei-nuan eta garapenean zenbati eragi-lek parte hartzea. Ildo horretatik, Hartu Emanak elkar-teak Barakaldon eta Portugaleten egiten dituen proiektue-tan askotariko eragileak biltzen dira, ekimen bat eraginkortasunez abia-razteko asmoz: hezkuntza-sektorea, sektore publikoa, egoitzak, pertsona zaharrak zaintzen dituzten erakun-deak...

Ondare Hezkuntza. Ondare Hezkun-tzako ikaskuntza-programetan parte hartu ondoren, ikasleek are gehiago errespetatzen dituzte ondare-elemen-tuak. Ikasleek egunero izaten dituzte esperientziak, beren bizi-ekosistemako elementuei lotuta, baina Hartu Ema-nak elkar-teak antolatzen dituen onda-re-hezkuntzari buruzko jarduera txiki horien ondoren, baliteke ondare-tzat hartzea lehen beste era batean har-tzen zituzten elementuak.



HARTU EMANAK
ETENGABE IKASTEKO ETA GIZARTEAN
PARTE HARTZEKO HELDUEN ELKARTEA
hartuemanak@euskalnet.net

T: 944 15 51 14

www.hartuemanak.org

Baliabide interesgarriak:
[Memoria Hartu Emanak](#)

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

ERAGILE
SUSTATZAILEA:
HIRUGARREN
SEKTOREA

ZER IKASI DUGUN ESPERIENTZIA HORIETATIK...

Gure ingurunean, belaunaldiarteko hamaika esperientzia gertatzen dira egunero; eta orrialde hauetan adibide batzuk baino ez ditugu jaso. Gida honetan esperientzia horiek eta antzekoak diren beste esperientzia asko goraiatzeko ditugu, gizartearen benetako eraldaketa soziala eragiten dutela uste dugulako.

Arestian azaldu ditugun esperientziak (hamaika, guztira) pertsona hartzaileen egoera ez ezik, gizarte solidarioagoa eta bidezkoagoa eraikitzen ere lagundu dute. Pertsona parte-hartzaileek edo erakundeek bakarrik ez zuten halako eraldaketarik eragingo. Betidanik egon dira belaunaldiarteko harremanak, baina gaur egun berriro sortu dira gizarte eraldatzeko modu sortzaile gisa (**3. Yos-Concept: Young and Old in School (Zaharrak eta gazteak elkarrekin eskolan).**)

Belaunaldiarteko programek pertsonen, erakundeen eta erkidegoen berdintasuna, ongizate soziala, onura eta indarra hobetzen lagundu ahal eta lagundu behar dute (**10. Topaketa kulturalak eta integratzaileak askatasunik gabeko pertsonekin eta egoitzan bizi diren mendeko persona zaharrek).**)

Belaunaldiarteko programa horiek sektoreen arteko lankidetzaz-aurerak ematen dituzte, ekimenak (haietako batzuk berri-tzaileak ere) garatzeko, eta bide emango dute gure gizartearen ditugun arazo garrantzitsu asko konpontzeko. Belaunaldiarteko programetan rol handia dute informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeko modu berriek, parte-hartzeko era berriek eta kultura eta artea sortzeko modu berriek (**7. Mix@ages**). Horrez gain, laguntzeko modu berriak ere sortzen dira (**4. Hear Me! (Entzun ieza dazuzu!)**), garapen ekonomikoa eta enplegua sortzeko modu berriekin batera.

Adibideek argi erakusten dute zer ikas dezakegun. Belaunaldiarteko programek aurrera egingo badute, beharrezkoak izango dira bestelako jokabideak eta sektoreen arteko harreman berriak

(**5. Güre Aiton Amonak**). Hainbat eragilek sustatu eta bultzatu dituzte gida honetan azaldu ditugun programak; eta eginkizunak eta parte hartzeko mailak ere anitzak izan dira. Sektore publikoko, merkataritza-sektoreko edo irabazi-asmorik gabeko sektoreko pertsonak izanda ere, pertsona guztiek dute guztientzako gizarte eta gizarte eraldatua, iraunkorra eta solidarioa sortzeko gaitasuna (**6. Belaunaldiarteko ortua**). Adibide horiek lotuta daude tokiko ingurune beharrek eta auke-ekin (**9. Cibermanagers (Ziber-kudeatzaileak)**), baina aldi berean behar eta aukera horiek beste ingurune batzuetan ere aurki ditzakegu.

Duda barik, belaunaldiarteko gizarteak eraikitzeko aurrerapausoak ematen jarraitu behar dugu. Horretarako, pixkanaka lortu behar dugu belaunaldiarteko programak zer diren hobeto ulertzea eta haiei lotutako ekintzak garatzea (**11. Barakaldo atzo...Eta Portugaleteko film-programa batzuk**).

Laburbilduz, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Errealistak izan behar dugu zer egin dezakegun zehazterakoan. Belaunaldi guztietako pertsonen (gazteei, helduei, zaharrei) eska diezaiekegu ideia berriak sortzeko eta egin dezakegunaren gaineko ikuspegia handitzeko.
- Proiektu bat diseinatzerakoan, belaunaldi ezberdinetako pertsonen hausnarketak egiteko eska diezaiekegu, eta honako galdera hau egin diezaiekegu geure buruari: zer onura gehigarri sortzen dira, gazteak eta zaharrak jarduera batean elkarrekin aritzen direnean? Gazteak beren kabuz jarduera hori egiteko gauza baldin badira, zergatik pentsatu dugu belaunaldiarteko talde bat osatzean? **8. Wild, Wild Women; belaunaldiarteko jarduera artistikoa, hamar urtean, The Women Library liburutegian** bezalako proiektuetan aurkituko dugu erantzuna; proiektu horietan ikusten dugu, belaunaldi ezberdinetako pertsonen parte

hartzten dutenean, adinari buruzko aurreiritziak ezabatzen direla, eta harreman onak sor daitezkeela.

- Gai interesgarriak aukeratu behar ditugu, eta, ondoren, adin ezberdinetako pertsoneri parte hartzeko aukera emango diegu, elkarrengandik ikasteko. Proiektua gazteen eta zaharren artean ikasteko ez ezik, pertsona guztien artean ikasteko ere izan daiteke: edonork izan ditzake bizipenak, 18 urte edo 68 urte izanda ere.
- Gogoz saiatu behar dugu belaunaldi guztietako pertsonen gaitasunak, konpetentziak eta trebetasunak sorrarazten, eta gizartea eraldatzeko duten indarra bultzatzen.
- Pasioa, elkarrekin laguntzeko asmo handia eta konpromiso pertsonala dituzten pertsonak diseinatu eta garatzen dituzte belaunaldiarteko programak; eta alderdi oso garrantzitsua da hori.
- Guneak eta inguruneak, eta, batez ere, belaunaldien arteko harremanak

era batean edo bestean bultzatzen diren tokiak zehaztu behar ditugu. Leku horiek bermatu behar dituzte pertsonen arteko harremanak eta lankidetzazko baldintzak (**1. Ostatu alternatiboa. Belaunaldiarteko bizikidetzaz eta elkarrekin laguntza**).

- Belaunaldien arteko jarduera batzuk zehaztasun handiz pentsatu, garatu eta ebaluatu dira; beste batzuk, ordea, jarduera erraz eta xumeetan sortzen dira, gero, haien plangintza pixkanaka handitzen da, ingurune premiei erantzuna emateko (**2. Jakinduria babestu**).
- Belaunaldiarteko programen oinarrietan zenbait balio eta helburu nahastu dira; eta hori kontuan hartu behar dugu. Horrez gain, haien eragina aintzat hartu behar da, politika berriak pentsatzerakoan.
- Eta... parteka ditzagun esperientziak... Belaunaldi arteko jarduerak beste testuinguru batzuetan ere egin daitezke.



BESTE ESPERIENTZIA-BANKU BATZUK...

EAEko ikastetxeetan egin diren programak, belaunaldiarteko harremanak bultzatzeko

Proiektu hori EDE Fundazioak egin zuen, BBK-Gizarte Ekintza arloarekin batera. Proiektuaren helburua EAEko ikastetxeek egin dituzten belaunaldiarteko jarduerak zehaztea da.

Belaunaldien arteko solidaritatearen eta zahartze aktiboaren gaineko esperientzia-bankua, Imstersokoa

Imstersoko banku-esperientzia da. Horren bidez, zahartze aktiboari buruz eta belaunaldien arteko solidaritateari buruz estatuan egin diren bizipenak partekatu eta ezagutarazi nahi dira.

Europako esperientziei buruzko datu-bankua – 2012, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko solidaritatea bultzatzeko urtea

Europako Batzordearen datu-basea, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko solidaritatea bultzatzeko 2012. urtearen esparruan. Datu-basean esperientziak bila daitezke, herrialdearen, gaiaren eta sustatzaileen arabera.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK



OTROS BANCOS DE EXPERIENCIAS...

Guía de ideas para la planificación de proyectos intergeneracionales: Juntos, hoy, ayer y mañana –MATES Proiektua

MATES (Mainstream Intergenerational Solidarity; belaunaldiak integratzeko solidaritatea) ekimenean egin den gida, belaunaldiarteko proiektuak antolatze eta gauzatzeko. Europako Batzordearen Etengabeko Ikaskuntzako Programak ere finantzatu du.

EMIL (European Map of Intergenerational Learning): Kasuei buruzko azterlanak eta EMIL sariak

EMIL (European Map of Intergenerational Learning) erakunde-sare bat da. Elkarrekin jarduten dute, belaunaldiarteko ikaskuntza European sustatzeko. Kasuei buruzko azterlanak eta europar ekimenak jaso dituzten sariak kontsulta daitezke datu-bankuan.

European Network for Intergenerational Learning: materialak eta jardunbide egokiak

European egin diren belaunaldiarteko jardura egokiei buruzko datuak eta materialak. *European network for Intergenerational Learning* sarearen webguneak kontsulta daitezke; europar sarea da belaunaldien arteko ikaskuntza sustatzeko.

Belaunaldien arteko solidaritateari buruzko jardura onak

Age Platform Europe sarearen jardura onak. Europako sarea da, eta pertsona zaharren eta pertsona zaharrentzako erakunde batzuek (150 baino gehiago) osatzen dute. Belaunaldien arteko solidaritatearen arloan, Europako jardueren bankua kontsulta daiteke.

Centre for Intergenerational Practice zentroan jasotako esperientziak

Centre for Intergenerational Practice zentroak jaso dituen esperientziak dira. Beth Johnson Foundation fundazioaren ekimena da. Belaunaldiarteko jarduerak garatu eta sustatu nahi ditu, eraldaketa soziala katalizatze.

AZALPENEZKO
ADIBIDEAK

Dokumentu eta tresna hauen on-line bertsiora sarbide erraza izateko www.bizkaia.net/generakzioa web-orrialdeko "Atal interesagarriak" deritzen atalean gida honen bertsio digitala kontsultatu

7. IBILBIDEKO ETAPA BAKOITZEKO PAUSOAK ETA EKINTZAK

Belaunaldi arteko programa bat garatzea **bost etapako** ibilbide bati ekitea bezalakoa da. Gure aukerak eta interesak zeintzuk diren, ibilbidearen iraupena

eta konplexutasuna aldatuko dira. Edonola ere, horrelako programa bat behar bezala kudeatzeko, ezinbestekoa da bost etapa egitea.



IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Etapak bakoitzean funtsezko ekintza batzuk egin behar dira. Ibilbidea egin aurretik eduki beharreko «gutxieneko hornigaiak» direla jo dezakegu. Ekintza horiek oinarizko jarraibide gisa adierazi

ditugu. Jarraibide bakoitzarekin batera argibide eta aholku erabilgarriak jaso dira, orientabide erraza eta **ibilbide sinplea** egin nahi dutenei laguntzeko.



Badakigu horrelako programak sakon garatzeko aukera anitz daudela; horregatik, «**hornigai osagarriak**» eman ditugu, **ibilbide konplexuagoak** egin nahi dutenek laguntza-baliabide gehigarriak eduki ditzaten.

Etapak betetzeko proposatu dugun ordena (1-2-3-4-5) zertxobait alda

daiteke; hau da, 1. eta 2. etapen hurrenkera alda daiteke, prozesua errepikatu ahala. Baliteke programaren ondorioz sortzen diren belaunaldiarteko taldeak aurrera jarraitzea, eta, denbora igaro ahala, beraien aukeratzea hurrengo programan lantzeko gaia edo premia (beraz, ordena 2-1-3-4-5 izango litzaiteke).

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Belaunaldi arteko programa batek xede zehatza dauka; egoera bat hobetzeko asmoz egiten da.

1. ETAPA: IDEIA ZEHAZTEA ETA HELBURUAK EZARTzea

Zergatik da garrantzitsua IDEIA argitzea eta HELBURUAK azaltzea? Programa guztien abiapuntua egoera batean zehaztu den premia bat da, eta programaren helburua jarduerak egitea eta egoera hori hobetzea da.

ZER EGIN, OINARRIZKO JARRAIBIDEAK...

ARGIBIDE ETA AHOLKU ERABILGARRI BATZUK

1. Aztertu errealitatea, zehaztu zer premia edo egoera hobetu nahi duzun. Bilatu egoera edo premia hori hobetzeko ideia egoki bat. Zerk kezkatzen zaitu? **Zergatik gertatzen ari da hori? Zer erantzun ematen zaio gaur egun, eta zer erantzun eman liezaioke?**

- Zehaztu zure lanaren esparru geografikoa.
- Hasieran, deskribatu abiapuntua: bildu datuak, esparru horretako beharrei eta beharren bilakaerari buruz.
- Zehaztu egoera horren aldagaiak: zioak, ondorioak, eragin-faktoreak, etab.
- Aztertu egoera hori gaur egun ematen zaizkion erantzunak.
- Errealitatea aztertzeko, honako tresna hauek baliagarriak dira informazioa biltzeko: dokumentuak berrikustea, elkarrizketa sakonak, behaketak, eztabaida-taldeak...
- Programaren ideia zehaztu ahal izateko, ideiak sortzeko teknika irekiak erabil ditzakezu (ideia-jasa, mapa mentalak...). Teknika horiek baliagarriak dira, aukerak zehazteko eta lehenesteko.
- Zehaztu nola erantzun nahi diozun egoera larrigarri hori; eta ziurtatu ideia argia, berritzailea, egokia eta eraldatzailea dela.

2. Aztertu zer baliabide erabil ditzakezun **Zenbateko finantzaketa duzu edo izan dezakezu? Zer giza eta material baliabide duzu?**

- Azterketa errealista egin behar duzu, erakundeak proiektuari ekiteko duen gaitasun teknikoa eta ekonomikoa zehazteko. Horretarako, zehaztu behar duzue zer baliabide (personak, materialak, dirua) erabilgarri duzuen programaren diseinua egoerara moldatzeko eta haren bideragarritasuna ziurtatzeko.
- Finantzaketa-aukerak berariaz aztertu behar dituzu, programari ekin aurretik: sektore pribatuaren laguntzak, diru-laguntza publikoak, zuen ekarpena, etab. Funtzak lortzeko estrategia prestatzeko denbora hartu behar duzu.
- Aztertu zure ideia, eta ziurtatu bideragarria eta koherentea dela, errealitatea eta baliabide erabilgarriak aintzat hartuta.

3. Argi zehaztu zer lortu nahi duzun programaren bidez. Azaldu helburu orokorrak

Zein da programaren helburu zehatza?

- Zehaztu dituzun premiak eta egoerak helburu bihurtu. Helburu horiek aurrerapausoak erakutsi behar dituzte egoeran. Kontuan izan helburuek estrategia bati lotuta egon behar dutela, antzemandako egoera hobetzen saiatzeko.
- Benetako premiei erantzuteko baliagarriak diren helburuak (erkidegoan garrantzitsuak diren gai ei buruzkoak) ezartzen saiatu behar duzu.
- Helburuok errealistak izan behar dute, bai eta erabilgarri dauden baliabideen araberakoak.

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Zure erakundearen eta unearen ezaugarriak aintzat hartuta, ibilbide azkarrena edo zuzenena egitea aukera dezakezu, emandako argibideei jarraituta; edo etapa bakoitza gehiago lantzea ere aukera dezakezu, azterketa zehatzagoa egiteko. Bigarrena aukeratzen baduzu, beste ibilbide interesgarri batzuk ezagutuko dituzu. Baliteke honako

baliabide hauek lagungarriak izatea esperientzia horretan:

BALIABIDE INTERESGARRIAK	GIDA HONETAKO ADIBIDE EREDUGARRIA: 10
	<ul style="list-style-type: none"> ✓ BALCÁZAR, A. S. y CRUZ, A. L. Solidaridad intergeneracional: concepciones y aportes desde la experiencia para la sostenibilidad social. <i>Tendencias y retos</i> [linean]. 2013, 18. liburukia, 1 zenbakikoa, 27-142 orr. [+] ✓ INNOBASQUE. <i>Euskadi envejece. Innobasque en el ámbito del envejecimiento activo y saludable. Enfoque, actuaciones y agentes</i>. Bilbo: Innobasque, 2011. [+] ✓ SÁNCHEZ, M. (Dir.). <i>Programas intergeneracionales. Hacia una sociedad para todas las edades</i>. Bartzelona: Obra Social La Caixa, 2007. Colección Estudios Sociales, 23. zenbakikoa. [+] ✓ EUROPAKO BATZORDEA. ENPLEGUA, GIZARTE GAIK ETA AUKERA BERDINAK ZAINTEKO ZUZENDARITZA. <i>Libro Verde Frente a los cambios demográficos, una nueva solidaridad entre generaciones</i>. Luxenburgo: Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Aukera Berdinak ziurtatzeko Zuzendaritza, 2005. [+] ✓ HATTON-YEO, A. y OHSAKO, T. (ed.). <i>Programas Intergeneracionales: Política Pública e Implicaciones de la Investigación. Una Perspectiva Internacional</i>. UNESCOko Hezkuntza Institutua. The Beth Johnson Foundation, 2001. [+] ✓ HARTU EMANAK. <i>Los programas intergeneracionales</i>. Bilbo: Hartu Emanak. [+]
	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <u>Kudeaketako laburra: ¿Cómo incorporar la perspectiva comunitaria ante una sociedad individualizada?</u> (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org) ✓ <u>Kudeaketako laburra: El proyecto: una respuesta innovadora a las necesidades sociales emergentes</u> (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org) ✓ <u>Eraldaketa sozialeko bizipenak sistematizatzeko gida</u> (Alboan: www.alboan.org) ✓ <u>Guía para la formulación de proyectos</u> (UPM Fundazioa: www.upm.com) ✓ <u>Técnicas de análisis de la realidad</u> (Bolunta: www.bolunta.org) ✓ <u>Metodologías de análisis de la realidad global y local</u> (Plataforma de Voluntariado de España: www.plataformavoluntariado.org) ✓ <u>Helburuak ezartzeko irizpide praktikoak</u> (UNED: www.uned.es) ✓ <u>Canvas negozio-eredua</u> (www.businessmodelgeneration.com)
	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <u>Erakunde autonomoa: Europako Hezkuntza Proiektuak</u> (OAPEE: www.oapee.es) ✓ <u>Erasmus+</u> (Europako Batzordea: www.ec.europa.eu) ✓ <u>Erasmus+ helduak</u> (Europako Batzordea: www.ec.europa.eu) ✓ <u>Erasmus + ikastetxeak</u> (Europako Batzordea: www.ec.europa.eu) ✓ <u>Ikastetxeei zuzendutako laguntzak eta diru-laguntzak</u> (Eusko Jauraritza: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) ✓ <u>Itunpeko ikastetxeei zuzendutako laguntzak eta diru-laguntza</u> (Eusko Jauraritza: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) ✓ <u>Hirugarren sektoreari zuzendutako baliabideak eta finantzaketa bilatzeko tresna</u> (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org) ✓ <u>Kudeaketako laburra: Los pilares del Fund-Raising</u> (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org) ✓ <u>Kudeaketako laburra: Crowdfunding/Mikrofinantzaketa kolektiboa</u> (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)

Dokumentu eta tresna hauen on-line bertsiora sarbide erraza izateko www.bizkaia.net/generakzioa web-orrialdeko "Atal interesgarriak" deritzen atalean gida honen bertsio digitala kontsultatu

Belaunaldiarteko programa batek bizitza-ziklo ezberdinetan dauden pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu.

2. ETAPA: PARTE-HARTZAILEAK ETA BESTE ERAGILE GAKO BATZUK PROGRAMARI ATXIKITZEA

sustatu behar ditu pertsonen inplikazioa eta parte-hartzea; izan ere, pertsonen neurria diseinatu behar da. Horrela, pertsona guztiek sentituko dute proiektuaren zati direla, eta proiektua bere egingo dute, proiektua eraikitzeko eta gauzatzeko.


ZER EGIN, OINARRIZKO JARRAIBIDEAK...	ARGIBIDE ETA AHOLKU ERABILGARRI BATZUK
4. Zehaztu inguruneko zer erakundek (publiko edo pribatu) lagun diezaioketen proiektuari Nork egin dezake bat ideiarekin? Nolako laguntza eman dezakete?	<ul style="list-style-type: none"> Sarean jardun: zenbat eta erkidegoko eragile gehiagok bat egin programarekin, orduan eta errazagoa izango da programaren berri ematea. Sareko elkarlanean beharrezkoa da, programa egin aurretik, harremanak egitea (erakundeek elkar ezagutzea, konfiantza sorraraztea, etab.). Zehaztu lankidetzaz-esparrua (helburuak, modua). Eragile bakoitzaren zioak eta aurreikusitako onurak esplizituki ezagutzen badira, honako alderdi hauek zehatzago azalduko dira: lankidetzaren iraupena, laguntzaile bakoitzaren funtzioak, ekarpenak, komunikazio- eta kontrol-tresnak, kostuen banaketa, etab. Hainbat lankidetzaz-mota egon daitezke, baina erakunde bakoitzak bere eginkizuna zehaztu behar du.
5. Zehaztu balizko parte-hartzaileak, eta nola jar zaitezkeen beraiekin harremanetan, programaren berri emateko Programan, nork har dezake parte? Non daude pertsona horiek, eta nola hurbilduko zara haiengana?	<ul style="list-style-type: none"> Onuradun zuzenak eta zeharkakoak bereizi behar dituzu. Beharrezkoa baldin bada, zehaztu zer pertsona geratzen diren programatik kanpoan. Saiatu proaktiboa izatean, parte-hartzaileen inplikazioa lortzerakoan. Ez itxaron pertsonak zurengana jo arte. Aztertu bazterkeria-mota anitzeko egoeretan dauden pertsonen programan parte hartzeko aukera ematea: ezarri zeharkako erreferentziak adinaren eta beste aldagai batzuen artean (sexua, desgaitasuna, jatorri etnikoa, baztertuak izateko arriskua, etab.). Kontuan hartu behar duzu, programak aurrera egin ahala, parte-hartzaileek ere beste parte-hartzaile batzuen inplikazioa lor dezaketela.
6. Arrazoitu programarekiko atxikipena Zer konpromiso-mota eskatzen die programak pertsona parte-hartzaileei? Zer onura-mota ekar diezaietke programak?	<ul style="list-style-type: none"> Adinako informazioa eman behar duzu (bileren eta elkarriketen bidez). Horrela, parte-hartzaileek informazioa izango dute, erabakia hartzeko. Motibazioa gako da pertsona parte-hartzaileek programarekin bat egin dezaten. Benetako konpromisoa hartuz gero, errazago eutsiko diote konpromisoari.
7. Programari ekin aurretik, ondo ezagutu, eta trebatu pertsona parte-hartzaileak Zeintzuk dira haien premiak edo interesak? Zer gaitasun eta trebetasun dute?	<ul style="list-style-type: none"> Bildu informazioa parte-hartzaileen ezaugarriei, beharrei, interesei, gaitasunei eta trebetasunei buruz. Pertsona parte-hartzaileei trebakuntza edo prestakuntza ematen badiegu, konfiantza handiagoa izango dute haien buruetan (zer egin eta nola jakingo dute, eta aurreiritziak ezabatuko dituzte). Batzuetan komeni da prestakuntza-saioak adinaren arabera bereiztea, guztientzako prestakuntza-saioak antolatu aurretik.


IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK


Etapa hori gehiago landu nahi baduzu, hona hemen baliabide erabilgarri batzuk...

BALIABIDE INTERESGARRIAK

GIDA HONETAKO ADIBIDE EREDUGARRIA: 4

- 
- ✓ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. *Retratos de juventud*. EUSKO JAURLARITZA, 2014. **[+]**
 - ✓ GUTIÉRREZ, M. y HERNÁNDEZ, D. Los beneficios de los programas intergeneracionales desde la perspectiva de los profesionales. *Pedagogía social. Revista interuniversitaria*. 2013, 21 zenbakikoa, 213 – 235 orr. **[+]**
 - ✓ DOMINGUEZ, M. E. Programas intergeneracionales: reflexiones generales a través del análisis DAFO. *Revista Electrónica de Psicología Social «Poiésis»*. 2012ko abenduan, 24 zenbakikoa. **[+]**
 - ✓ LÓPEZ, R. y DESLAURIERS J. La entrevista cualitativa como método de investigación en Trabajo Social. *Revista Margen*. 2011ko ekaina, 61 zenbakikoa. **[+]**
 - ✓ SÁNCHEZ, M., KAPLAN, M. y SÁEZ CARRERAS, J. *Programas intergeneracionales: Guía introductoria*. Madril: IMSERSO, 2010. **[+]**
 - ✓ FERNANDEZ, J. El aprendizaje intergeneracional. *Revista de formación y empleo «Formación XXI»*. 2006, 4 zenbakikoa. **[+]**
 - ✓ *Portal Mayores. Relaciones intergeneracionales*. IMSERSO, 2009. **[+]**
 - ✓ RODNEY, J. *Las personas en la gestión de proyectos*. Madril: Asociación Española de Normalización y Certificación, 2005.
 - ✓ *Estereotipos asociados a las personas mayores*. EUSKO JAURLARITZA. **[+]**

- 
- ✓ [10 juegos para romper el hielo](http://www.escuela20.com) (2.0 Eskola: www.escuela20.com)
 - ✓ [Manual para la integración de la perspectiva de género en el desarrollo local y regional](http://www.emakunde.euskadi.eus) (Emakunde: www.emakunde.euskadi.eus)
 - ✓ [Kudeaketako laburra: 10 consejos para gestionar las relaciones de colaboración](http://www.3sbizkaia.org) (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)
 - ✓ Belaunaldiarteko programekin bat egiteko motibazioa suspertzeko gida (geuk eginda, ikus eranskina)

- 
- ✓ [Boluntariotza eta parte-hartze sozialerako Bizkaiko agentzia](http://www.bolunta.org) (www.bolunta.org)
 - ✓ [Bizkaiko Adinekoen Behatokia](http://www.bizkaia.net) (www.bizkaia.net)
 - ✓ [Gazteen Euskal Behatokia](http://www.gazteaukera.euskadi.eus) (www.gazteaukera.euskadi.eus)

- 
- ✓ [Gizarte Zerbitzuetako erakunde eta zentrozen direktorioa](http://www.direktorioa.net) (Eusko Jaurlaritza: www.direktorioa.net)
 - ✓ [Hirugarren sektoreko erakundearen direktorioa](http://www.3sbizkaia.org) (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)
 - ✓ [Bizkaiko adinekoen elkarteak](http://www.bizkaia.net) (Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net)
 - ✓ [Berdintasunerako Foroaren Elkarteak](http://www.bizkaia.net) (Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net)
 - ✓ [Bizkaiko Gazteen elkarteak](http://www.euskadi.eus) (Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.eus)
 - ✓ [Euskadiko Gazteriaren Kontseilua](http://www.astialdiforaa.org) (Astialdi foroa: www.astialdiforaa.org)
 - ✓ [EAEko ikastetxeen direktorioa](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) (Eusko Jaurlaritza: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)
 - ✓ [GISLUR enpresen bilatzailea](http://www.gislur.com) (Bilboko Merkataritza Ganbera: www.gislur.com)
 - ✓ [Tokiko direktoria](http://www.eudel.net). EUDEL (Euskadiko udalen elkarteak: www.eudel.net)

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Dokumentu eta fresna hauen on-line bertsiora sarbide erraza izateko www.bizkaia.net/generakzioa web-orrialdeko "Atal interesgarriak" deritzon atalean gida honen bertsio digitala kontsultatu

Belaunaldiarteko programa batek lankidetzak eta elkartruke-esperientziak sustatzen ditu, antolatutako jardueren inguruan.

3. ETAPA: JARDUERAK DISEINATzea ETA ANTOLATzea

4. ETAPA: GAUZATzea

Zergatik da garrantzitsua PLAN ona izatea? Programa batean behar bezala zehaztu, ordenatu eta koordinatu behar dira eskuragarri dauden baliabideak: baliabide horiek helburuak lortzen lagunduko dutelako.

ZER EGIN, OINARRIZKO JARRAIBIDEAK...

ARGIBIDE ETA AHOLKU ERABILGARRI BATZUK

8. Atera helburu zehatzak, alde zurretik ezarri dituzun helburu orokorretatik. Identifikatu zer ekintzaren bidez lor daitezkeen, eta ordenatu ekintza horiek, mailakako garapena bermatzeko **Abiapuntuko egoerarekin erkatuta, zure ustez, zer aldatuko du programak, amaitzen denean? Nola lagunduko du jarduera bakoitzak, ezarritako helburuak lortzen? Nondik hasiko gara? Eta ondoren, nondik jarraituko dugu? Noiz egingo da eta zenbat iraungo duen jarduera bakoitzak? Zer lotura dago jardueren artean?**

- Saiatu helburu neurgarriak ezartzen (aurreikusitako aldaketan betetze-maila, mota edo zenbatekoa adierazi ahal izateko).
- Prestatu jardueren egutegia, aurreikusi haien iraupena, etab.
- Belaunaldien arteko harremanak pixkanaka egin daitezke: esaterako, elkar ezagutzeko saiok antola daitezke. Batez ere, hasieran, garrantzitsua da saioren bidez pertsonen elkarrekiko konfiantza areagotzea.

9. Erkidegoaren, parte-hartzaileen eta baliabide erabilgarrien araberako jarduerak aukeratu, programan garatzeko **Jarduerak bat al datoz parte-hartzaileen gaitasunekin, trebetasunekin eta interesekin? Koherentziarik al dago planaren eta baliabideen artean?**

- Kontuan hartu genero-ikuspegia eta kulturartekoa. Aintzat hartu behar dituzu pertsona parte-hartzaileen bizi-baldintzak, egoerak, gizarte-maila, kultura-egoera, ekonomia-egoera eta premiak. Jabetu errealitateaz, eta kontuan izan jarduerak diseinatzerakoan.
- Eskatu parte-hartzaileen inplikazioa, jarduerak diseinatzerakoan. Horrela, jarduerak haien interesekin bat datozen ziurtatuko duzu.
- Jarduerak programatzerakoan, bilatu gune neutralak, eta zaindu pertsona batzuek gune horiek ez ezagutzea beste batzuek baino hobeto.
- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza egin behar duzu.
- Jarduera garestiak egin nahi badituzu, izan errealista edo irudimentsua, finantzaketa oztopoa izan ez dadin.

10. Diseinatu jarduerak, pertsona guztien parte-hartzea barne hartzeko. **Argi zehaztuta daude norberaren eginkizunak? Pertsona guztiak eroso sentituko dira?**

- Zehaztu eta esleitu parte-hartzaile bakoitzari eginkizun argiak, koherenteak eta esanguratsuak.
- Garrantzitsua da, besteak beste, gauzak garatzeko eta onurak eskuratzeko beharrezko denbora aurreikustea.
- Ziurtatu elkarrekikotasuna bermatuta dagoela jardueretan. Saiok interaktiboak izan behar dute, eta norberaren alde onena erakusteko bide eman behar dute. Elkarlanak ikaskuntza aktiboa eta eraikigarria pizten du, pertsonen arteko komunikazioari laguntzen dio, eta parte-hartzaileen elkarrenganako konfiantza areagotzen du.
- Saiatu jarduera-sorta zabala eta anitza antolatzen.

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Zergatik da garrantzitsua proiektua GAUZATZEKO fasea? Fase honetan gauzatu eta praktikan jarriko dira aurreko etapetan landu diren ideiak eta aurreikuspenak.

ZER EGIN, OINARRIZKO JARRAIBIDEAK...

ARGIBIDE ETA AHOLKU ERABILGARRI BATZUK

11. Plana antolatuta izan ondoren, **abiarazi programa eta jarri martxan aurrekusi dituzuen ekintzak!**

- Izan beti helburuak gogoan, eta jarraitu ezarritako lan-planari; baina jokatu malgutasunez, eta berrantolatu plana, ezusteak gertatzen baldin badira.
- Pertsona laguntzaileek edo bitartekariak eginkizun handia dute parte-hartzaileen motibazioa areagotzeko, jarduerak garatu bitartean.
- Gogoratu etengabeko jarraipena egin behar duzula programa osoan (hasieratik amaiera).

Etapia horiek gehiago landu nahi badituzu, hona hemen baliabide erabilgarri batzuk...

BALIABIDE INTERESGARRIAK

GIDA HONETAKO ADIBIDE EREDUGARRIA: 3



- ✓ PASCUAL, B. et al. Los programas intergeneracionales en el contexto escolar análisis de una experiencia en Palma de Mallorca. *In: Variables psicológicas y educativas para la intervención en el ámbito escolar*. Almería: María del Carmen Perez Fuentes, 2013, 219-222 orr.
- ✓ SÁNCHEZ, M., DÍAZ, P., LÓPEZ, J., PINAZO, S. Y SÁEZ, J. *INTERGEN. Descripción, análisis y evaluación de los programas intergeneracionales en España. Modelos y buenas prácticas. Resumen ejecutivo*. [s.l.]: 2008.
- ✓ VILLAMERIEL, J. *Dinámica de grupos: técnicas de motivación y dinamización*. Oviedo: Oviedo-ko Unibertsitatea, Centro de Cooperación y Desarrollo Territorial (CeCodet), 2003. **[+]**



- ✓ [Guía para la gestión de proyectos sociales](#) (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)
- ✓ [Belaunaldiarteko proiektuak antolatze eta aplikatzeko ideia-gida: Juntos ayer, hoy y mañana](#) (MATES proiektua. www.matesproject.eu)
- ✓ [Herramientas para el diseño de proyectos sociales](#) (Errioxako unibertsitatea: www.unirioja.es)
- ✓ [Eskuliburua: ¿Hacemos un proyecto? Desde el principio hasta el final lo que debes recordar](#) (Gasteizko Udala: www.vitoria-gasteiz.org)
- ✓ [Eskuliburua: Cómo hacer proyectos](#) (Bolunta: www.bolunta.org)
- ✓ [Gida: A guide to Intergenerational Practice](#) (Beth Johnson Foundation: www.centreforip.org.uk)
- ✓ [Gida: Creating caring communities. A guide to establishing intergenerational programs for schools, care facilities and community groups](#) (BC Care Providers Association: Association: www.bccare.ca)
- ✓ [Aurrekontua egiteko tresnak](#) (Civicus: www.civicus.org)

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Dokumentu eta tresna hauen on-line bertsiora sarbide erraza izateko www.bizkaia.net/generakzioa web-orrialdeko "Atal interesagarriak" deritzon atalean gida honen bertsio digitala kontsultatu

Belaunaldiarteko programa bateko pertsona parte-hartzaileek ezagutzak, gaitasunak eta balioak eskura ditzakete. Hori dela eta, taldea eta pertsonak aberasten dira, eta erkidegoa garatu eta kohesionatu egiten da.

Zergatik da garrantzitsua EBALUAZIOA egi-tea? Programa batek egoera sozial desegokia aldatu nahi badu, ebaluatu egin behar da, benetako aldaketa egin den egiaztatzeko. Ebaluazioaren bidez neurtuko ditugu ezarritako xedeen eta egindako lanen arteko aldea, lortutako emaitzak eta emaitzen eragina gizar-tean. Ebaluazioa baliabide guztien erabilera eraginkorra bermatzeko tresna da, bai eta baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia bermatzeko ere.

5. ETAPA: EBALUAZIOA

ZER EGIN, OINARRIZKO JARRAIBIDEAK...

ARGIBIDE ETA AHOLKU ERABILGARRI BATZUK

12. Hasieratik pentsatu nola neurtuko dituzun emaitzak, nola egingo duzun programaren etengabeko jarraipena **Nola jakingo duzu zer lortzen ari zareten programaren bidez? Zer neurtuko duzu, nola eta noiz?**

- Antolatu ebaluazioa hasieratik: zehaztu zer lorpen edo helburu hautemangarri lortu nahi duzun (aurreikusitako emaitzak, helburu operatiboak), eta diseinatu adierazleak, helburu eta lorpen horiek neurtzeko. Helburuok bideragarriak (ziurtatu helburu edo lorpen horiek lortzeko zailtasuna ez dela handiegia), malguak (aldaketak jaso ditzakete), egiztagarriak (modu objektiboan zenbatu eta egiaztatu ahal dira) eta zehatzak (saihestu anbiguotasuna). Zehaztu nola bilduko duzun adierazle bakoitzaren informazioa, eta noiz.
- Gogoratu zenbait adierazle erabil dezakezula: batetik, ebaluazio- eta kudeaketa-adierazleak, prozesuen eta baliabideen araberakoak (jarduerak, epeak, eraginkortasuna eta abar egokiak ote diren); eta, bestetik, ebaluazio- eta kudeaketa-adierazleak, emaitzen araberakoak, epe laburrekoak eta epe luzekoak (helburuen bidez lortu nahi diren aldaketak, etab.).
- Zenbait teknika erabil daitezke, informazioa biltzeko: banakako edo taldeko elkarrizketak, galdera-sortak, behaketak, egiaztatzeko zerrendak, etab.
- Kalitateari lotutako teknikak erabili aurretik, komeni da metodologia kuantitatiboak erabiltzea, lortutako emaitzen eta hasierako betetze-estandarren arteko emaitzak erkatu ahal izateko.

13. Eskatu parte-hartzaile guztien inplikazioa, programaren emaitzak neurtzeko **Nork emango dizu informazio edo feedback baliagarria?**

- Oso garrantzitsua da ahalik eta parte-hartzaile gehienek parte hartzea ebaluazioan.
- Garrantzitsua da ebaluazioan biltzea sektore guztien ikuspegiak, eragin zuzena baldin badute: kudeaketa- eta administrazio-sektoreak, egikaritzan parte hartzen duten sektoreak eta erabiltzaileak edo onuradunak.

14. Bistaratu eta jakinarazi programaren eragin ona **Zer lortu nahi duzue guztien artean? Zer aldatu da? Nori kontatuko diogu?**

- Egin ezazu ebaluazio-txostena: jaso dituzun datu guztiak bertan jaso ditzakezu, bai eta datuen azterketa ere.
- Neurtu ekintzaren eragina, eta jakinarazi erakundearen barnean eta erakundetik kanpoan, lorpenak bistartzeko; parte-hartzaileak motibatzen eta lankidetzak berriak ezartzen lagunduko dizu.
- Lorpenak eskuratu ahala (eta ez amaieran soilik), oso lagungarria da parte-hartzaileekin arrakasta ospatzea, motibazioa suspertu nahi baduzu.
- Kontuan izan ebaluazioak informazioa sistematizatzeko ere balio duela, esperientziak jakinarazten dituela, eta antzeko ekimenak abiarazi nahi dituzten beste eragile batzuekin ebaluazio-informazioa partekatzeko bide ere ematen duela.
- Proiektuaren azken produktua beste hizkuntza batzuetara itzultzen bada, emaitzen hedapena biderkatuko da. Horren harira, proiektuaren webgune bat sortzea erabilgarria izan daiteke.

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Etapa hori gehiago landu nahi baduzu, hona hemen baliabide erabilgarri batzuk...

BALIABIDE INTERESGARRIAK

GIDA HONETAKO ADIBIDE EREDUGARRIA: 3



- ✓ SÁNCHEZ, M. (Dir.). *La evaluación de los programas intergeneracionales*. Madrid: IMSERSO, 2007. **[+]**
- ✓ TEJADA, J. Evaluación de programas. In: Tejada, J. y Giménez, V. (koord). *Formación de Formadores, Escenario Institucional, II liburukia*. Madrid: Thomson, 2007. 519-2, 391-465 orr.
- ✓ GOMEZ SERRA, M. Educación social y evaluación: Evaluar para mejorar y transformar. *Pedagogía social. Revista interuniversitaria*. 2005, 12-13 zenbakikoa, 163-179 orr. **[+]**
- ✓ PICADO, X. *Hacia la elaboración de indicadores de evaluación*. **[+]**
- ✓ DE ASÍS ORT, A. (koord.) *Justificación técnica y administrativa de proyectos subvencionados*. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, 2003.
- ✓ TEJEDOR, J. El diseño y los diseños en la evaluación de programas. *Revista de Investigación Educativa*. 2000, 2. zenbakikoa, 319-339 orr. **[+]**



- ✓ Kudeaketa-txosten laburra: Incorporando la evaluación como proceso de gestión (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)
- ✓ Guía de evaluación de programas y proyectos sociales (Plataforma ONG de Acción Social: www.3sbizkaia.org)
- ✓ Taller de investigación y evaluación (MEDIR proiektua: www.ieq.org)
- ✓ Guía para la elaboración de informes de impacto de género (Emakunde: www.emakunde.euskadi.eus)
- ✓ Manual para el diseño participativo de estrategias de comunicación (Voces nuestras: www.comunicacionparaeldesarrollo.org)
- ✓ Kudeaketako laburra: 5 buenas prácticas en la acción comunicativa (Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.3sbizkaia.org)

IBILBIDEKO
ETAPA
BAKOITZEKO
PAUSOAK ETA
EKINTZAK

Dokumentu eta tresna hauen on-line bertsiora sarbide erraza izateko www.bizkaia.net/generakzioa web-orrialdeko "Atal interesagarriak" deritzon atalean gida honen bertsio digitala kontsultatu

8. HAIZEAK ERABILTzea, GURE IBILBIDEA ARRAKASTAZ AMAITZEKO

Belaunaldiarteko programa bat diseinatzeko eta gauzatzeko erabakia hartzerakoan, egoera edo testuinguru batzuk aldekoak eta beste batzuk kontrakoak

izango direla onartu behar dugu. Beraz, aldeko egoerak indartzean eta kontrakoak eraldatzean eta hobetzean datza aurrera egiteko jokabidea.



ALDEKO HAIZEA

Erakundeko pertsoneri programaren berri ematen badiegu (nahiz eta pertsona horiek inplikaturik ez egon), lagungarria izan daiteke programa garatzeko.

Belaunaldiarteko jarduerak erakundearen ohiko funtzionamenduan integratzen badira, formalizatu eta arautu egiten dira; eta horrek iraunkortasuna ematen dio programari.

Antzeko ekimenei buruzko ezagutzak lagungarriak izango zaizkigu gure programa abiarazteko, besteen lorpenez eta akatsez ikasteko aukera izango baitugu.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezartzen baldin baditugu, haize ona ekarriko digute: ezustekoak gertatuz gero, programa moldatu ahal izango dugu, aurrea hartuko diegu arazoei, etab. Ebaluazioak konpromisoa eta baliabideen erabilera eraginkorra erakusten dizkie finantzaketa eman duten eragileei; beraz, etorkizuneko finantzaketa ziurtatuko du.

Gaitasunak hobeto garatzen dira, parte-hartzaileek protagonismoa baldin badaukate, eta ezagutzak elkartrukatzeko prozesuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan inplikatzeak aukera baldin badute. Programa erraztasun handiagoz garatuko da, baldin eta norberaren ekarpenak espresuki aintzatesten badira, eta pertsona guztiei laguntza eskatzen bazaie, arazoak konpontzeko.



KONTRAKO HAIZEA

Baliteke proiektu bat bideragarria ez izatea, ideia garatzeko beharrezko baldintza politikoak, sozialak, teknikoak edo ekonomikoak bildu ez direlako.

Era berean, baliteke baliagarria ez izatea, programaren ideia eta abian jarriko duen erakundearen identitatea bat ez datozelako. Proiektuaren eginkizunak eta erakundearen balioek bat etorri behar dute.

Programaren garapenean beste oztopo batzuk egon daitezke: programarekin zer ikusi handirik ez duten erakundeak aukeratzea eta norberaren eginkizunak eta aurreikuspenak argi ez azaltzea. Era berean, komeni da eragile batek programaren lider edo motor gisa ez jokatzeko.

Proiektuaren xedea den errealitatea aldatzea da; hortaz, etengabe aztertu behar dugu, sortzen ari diren premiak ezagutzeko, eta programak era egokian moldatzeko.



ALDEKO HAIZEA

Ekimenak beste eragile batzuekin partekatzen baditugu, sinergiak sortuko dira. Gainera, eragileen inplikazio estrategikoa lortzen badugu, programaren aintzatespena areagotuko da, eta iraunkorragoa izango da.

Proiektuak aurrera egiten badu, eta epe luzeko ekintzak garatu ahal baditugu, aukera gehiago izango ditu, arrakastatsua izateko.

Komunikazioa programaren iraunkortasunaren aldeko faktorea da: programaren lorpenak barnean (parte-hartzaile guztiak) zein kanpoan (beste eragile batzuk, finantziazio-eragileak, gizarte osoa) aintzat hartzen direlako.

Programak bat egiten baldin badu erkidegoaren benetako egoerarekin, eta beste helburu batzuk lortzeko jada garatzen ari diren jarduerak baliatzen baditu, errazagoa izango da haren iraunkortasuna bermatzea.



KONTRAKO HAIZEA

Pertsona parte-hartzaileen kultura-bereziatasunak zenbat eta gehiago onartu, errespetatu eta ulertu, orduan eta aukera gehiago izango du programak, arrakastatsua izateko.

Programarekin bat egin duten pertsonen konpromisoa ahulagoa izango da, eta jarduerak arriskuan jarri ahal izango dira, baldin eta parte-hartzaileen motibazioa suspertzen ez bada, edo informazioa eta orientabideak falta bazaizkie, programan duten konpromisoari buruzko erabakiak hartu behar dituztenean.

Programak ez badie elkarrekotasuna bermatzen, edo ez badie elkarrekiko onurarik edo aberastasunik ematen, arrisku larrian egongo da programa.

Belaunaldien arteko elkarrizketa emankorra izango bada, berdintasuna bermatu behar da pertsona parte-hartzaileen elkarrekintzan.

9. ERANSKINA

Gidaren bertsio laburtua: belaunaldiarteko programekin bat egiteko motibazioa suspertzeko tresna.

GIDAREN BERTSIO LABURTUA: BELAUNALDIARTEKO PROGRAMEKIN BAT EGITEKO MOTIBAZIOA SUSPERTZEKO TRESNA

ERANSKINA


1. ZER DIRA BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK?



Belaunaldiarteko programetan adin ezberdinetako pertsonen harremanak eta elkarlana sustatzen dira. Helburua ezagutzak, gaitasunak eta balioak elkarri ematea eta trukatea da. Bizipen aberasgarria da norberarentzat zein taldearentzat, eta, gainera, erkidegoaren kohesioa eta garapena indartzen dira.

2. ZER EMAITZA LOR DAITEKE PROGRAMA HORIEN BIDEZ? NORK BULTZA DITZAKE?


BELAUNALDIARTEKO PROGRAMEK HONELAKO ERKIDEGOAK BULTZATZEN DITUZTE (MAKRO ETA MIKROMAILETAN)



Programa horiek zenbait eragile sozialek (enpresak, herri-administrazioak, hezkuntza-zentroak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak) susta ditzakete. Xedeak eta onurak aintzak izan daitezke

3. ZER URRATS EGIN BEHAR DIRA, HORRELAKO PROGRAMA BAT EGITEKO?

Belaunaldiarteko programa bat errazagoa edo konplexuagoa izan daiteke; baina kasu guztietan bost etapa bete behar dira: abiapuntua egoera bat hobetzea da, horixe da helburua; ondoren, ekimenean parte hartzeko pertsonak eta laguntzaileak lortzen saiatzen da; gainera, plan egokia behar da, baliabide erabilgarriak ordenatzeko, koordinatzeko eta helburua lortzeko jarduerak antolatuzko; azkenik, planaren eraginkortasuna eta gizarte-eragina neurtzen dituen ebaluazioa egiten baldin bada, iraunkorra izan daiteke.



HAIZEAK ERABILTZEA, GURE IBILBIDEA ARRAKASTAZ AMAITZEKO

4. ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK ETAPA HORIEK?

1. Programa bakoitzak abiapuntutzat hartzen du premia edo egoera bat; ondoren, premia edo egoera horretan eragingo duten ekintzak antolatzen dira, egoera hobetzeko.

Belaunaldi arteko programa batek xede zehatza dauka; egoera bat hobetzeko asmoz egiten da.

1. ETAPA: IDEIA ZEHAZTEA ETA HELBURUAK EZARTZEA

2. Funtsezkoa da prozesuak zenbait pertsonaren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea, eta prozesua pertsona horien neurira diseinatzea. Horrela, pertsona guztiek sentituko dute proiektuaren zati direla, eta proiektua bere egingo dute, proiektua eraikitzeke eta gauzatzeko.

Belaunaldiarteko programa batek bizitza-ziklo ezberdinetan dauden pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu.

2. ETAPA: PARTE-HARTZAILEAK ETA BESTE ERAGILE GAKO BATZUK PROGRAMARI ATXIKITZEA

3 eta 4. Programa batek baliabide erabilgarriak zehaztu, ordenatu eta koordinatu behar ditu, helburuak lortzen lagunduko duten jarduerak martxan jartzeko. Jarduerak egin ahala, ideiak eta aurreikuspenak gauzatu eta abiaraziko dira.

Belaunaldiarteko programa batek lankidetzak- eta elkartruke-esperientziak sustatzen ditu, antolatutako jardueren inguruan.

3. ETAPA: JARDUERAK DISEINATZEA ETA ANTOLATZEA

4. ETAPA: GAUZATZEA

5. Programa batek gizartearen egoera desegoki bat aldatu nahi badu, ebaluazioa egin behar da, aldaketa hori benetan gertatu den ziurtatzeko. Ebaluazioaren bidez, ezarritako xedeen eta egindako lanaren arteko erlazioa, emaitzak eta emaitzek gizartean izan duten eragina azter daitezke. Baliabide guztiak eraginkortasunez erabili diren ziurtatzeko tresna da, eta proiektuaren eraginkortasuna eta efizientzia ere neurtzen ditu.

Belaunaldiarteko programa bateko pertsona parte-hartzaileek ezagutzak, gaitasunak eta balioak eskura ditzakete. Hori dela eta, taldea eta pertsonak aberasten dira, eta erkidegoa garatu eta kohesionatu egiten da.

5. ETAPA: EBALUAZIOA

ERANSKINA

5. ZER GALDERA ERANTZUN BEHAR DITUGU, BIDEA EZ GALTZEKO?

Honako galdera hauek erantzutea lagungarria da erabakiak hartzeko eta programa garatzeko:

1. Zeri eragin nahi diogu eta zergatik?

Zerk kezkatzen nau? Zergatik gertatzen da hori? Zer erantzun ematen zaio gaur egun? Beste erantzun bat eman lekiok? Zenbateko finantzaketa daukat edo eskura nezake? Zer giza baliabide edo material daukat? Zer lortu nahi dut programaren bidez?

2. Norekin eta norentzat?

Nork egin dezake bat ideiarekin? Nola lagun dezakete? Nortzuk izan daitezke parte-hartzaileak? Nola jarriko naiz harremanetan pertsona horiekin? Zer nolako konpromisoa eskatzen die programak parte-hartzaileei? Zer onura ekar diezaike? Zer behar eta interes dituzte? Zer trebetasun eta gaitasun dituzte?

ERANSKINA

3. Zer egingo dugu? Nola?

4. Egin dezagun!

er aldaketa zehatz aurreikusi dituzue programaren amaieran, abiapuntuko egoerarekin erkatuta? Nola laguntzen du jarduera bakoitzak ezarritako helburuak lortzen? Nondiko hasiko zarete? Eta nondik jarraituko duzue? Zenbat iraungo du jarduera bakoitzak? Noiz egingo da? Zer lotura dago jardueren artean? Jarduerak bat al datoz parte-hartzaileen trebetasunekin, gaitasunekin eta interesekin? Koherentziarik al dago planaren eta baliabideen artean? Rol argiak ezarri dituzue? Eroso sentituko dira pertsona guztiak?

5. Zer lortu dugu?

Nola jakingo dugu programaren bidez zer lortu dugun? Zer, nola eta noiz neurtuko dut? Nork emango dit feedback erabilgarria? Zer lortu dugu? Nori kontatuko diogu?

6. ZER GOGORATU BEHAR DUGU ARRAKASTA IZATEKO?

Oinarri batzuk gogoan izatea lagungarria izan daiteke, programaren arrakasta ziurtatzeko:

Erkidegoan garrantzitsua eta eraldagarria den programa bat pentsatzea helburutzat jo behar dugu. Era berean, programak bat etorri behar du gure erakundeen eginkizunarekin eta balioekin.

Parteka dezagun ideia beste eragile batzuekin, eta ezar ditzagun lankidetzaren harremanak, programaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna indartzeko.

Egin dezagun baliabide erabilgarrien azterketa errealista, eta diseina dezagun programa, azterketa horren arabera. Hala ere, berritzaileak eta sortzaileak ere izan behar dugu, oztopoei aurre egiteko.

Eska diezaiegun adin guztietako pertsonari (ez soilik gazteei eta zaharrei), gure programan parte hartzeko.

Eman diezaiegun adinako informazioa pertsona parte-hartzaileei, haien konpromisoa eta gogoa areagotzeko. Motiba ditzagun pertsona parte-hartzaileak haien lorpenak eta ekarpenak aitortuz eta jakinaraziz.

Eska diezaiegun parte-hartzaileei diseinuan eta ebaluazioan parte hartzeko. Horrela, benetako premietara eta interesetara egokituko da programa, bai eta bestelako ezaugarrietara eta gidalerro kulturaletara ere.

Jarduerak eta tokiak pertsona guztien parte-hartze eraginkorra suspertzeko egokiak direla zainduko dugu. Pertsona guztiei bermatuko diegu eginkizun argia eta esanguratsua dutela.

Ziurta ditzagun: pertsona guztiak aberasten ari direla, elkarrekintza baldintza berdinetan eta elkarrekikotasunean egiten dela, eta gaitasunen, konpetentzien eta trebetasunen balioa onartzen dela.

Egiazta ditzagun programaren lorpenak, bai eta programak gizartean izan duen eragin ona ere. Jakinarazi eta zabal dezagun gure esperientzia, beste leku batzuetan errepikatu ahal izateko.

ERANSKINA

ARGAZKIAK

ARGAZKIAK	KREDITUAK
1. Ostatu alternatiboa	Deustuko Unibertsitatea
2. Jakinduria babestu	Karmengo Ama Ikastetxea
3. YOS. Young and Old in School	Michael Wöstheinrich
4. Hear me! (Entzun iezadazu!)	Sacramento Pinazo. Valentziako unibertsitatea
5. Gure Aiton Amonak	Gugaz Gazteria Saila. Güeñesko Udala
6. Belaunaldiarteko ortua	Trinidad Suárez Rico
7. Mix@ges	Janet Sinica. SK Stiftung Kultur Köln
8. Belaunaldiarteko jardunbide artistikoa, 10 urtean, The Women Library liburutegian	Anita Mckenzie
9. Cibermanagers (Ziber-kudeatzaileak)	Pantallas Amigas
10. Topaketa integratzaileak	Aspaldiko Fundazioa eta ADSI (Bestalde) Fundazioa
11. Barakaldo atzo... Eta film-programak	Hartu Emanak elkarte

ERANSKINA